



# ARGIA

## M15

**mugimenduak 5 urte**

**POLITIKA ZAHARRA ETA BERRIA  
PLAZETAN BEREIZI ZIREN**



ASTEAZKENERO ARGIAN IKUSGAI

# TXOMINISTAK



TXOMINISTAK  
AK BAT



NAROA  
**MIKELARENA**



JON ANDER  
**ALONSO**



EDURNE  
**AZKARATE**



EÑAUT  
**GANTXEGI**

ENERITZ ARZALLUS · LANDER ARRETXEA · MIKEL FERNANDEZ · UNAI GAZTELUMENDI · PERU ISASI · BEÑAT ITURRIOZ · ANE LUSARRETA · KEPA MATXAIN · MIKEL ROMAN · LAIDA ZABALA



**PANORAMA**

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

**IRITZIA**

- 19 Estitxu Garai Artetxe
- 20 Bea Salaberri
- 21 Ramon Etxezarreta  
Joanes Etxebarria
- 22 Enrike Diez de Ultzurrun



*Presoen sakabanaketak Mirentxin gidari eta furgoneta sarea sortzea eragin du. Haiekin izan gara asteburu batez. (ARGAZKIA: IKER OÑATE AIASTUI)*

- 42 BIZI BARATZEA
- 44 DENBORAREN MAKINA
- 45 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:  
RAUL ZIBECHI
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: OLMO CALVO

**SAKONEAN**

- 14 | Anabel Arraiza, Irrien Lagunen bitartez Bizipoza elkartasun sarea ehuntzen / Reyes Ilintxeta
- 24 | "Suminduek" bost urte: plazetan hasi, agenda politikoa aldatzen bukatu / Gorka Bereziartua Mitxelena
- 29 | Urtxintza, aisialdia desprogramatzen / Mikel Garcia Ildiakes
- 32 | Errepidean elkartasunari Mirentxin esaten zaio / Iker Oñate Aiausti
- 36 | Ogi artisauaren prozesu osoa, bertatik bertara / Irati Sarasua Arabaolaza
- 40 | Gatika: herri euskalduna erdalduntzearen arrazoiak aztertzen / Marijo Deogracias
- 46 | Giza eskubideen zinema, kontzientzian eragiteko tresna / Miren Manias
- 50 | Plazetatik erretiroa hartu du Xabier Amuriza maisuak / Estitxu Eizagirre Kerejeta

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak  
diruz lagundua



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



DOAN ETA LIBRE  
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,  
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

**Jabetza:** Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea.  
**Lehendakaria:** Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.  
**Erredakzioa:** Ane Urkola, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Iker Oñate, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.  
**Diseinua:** Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.  
**Produktzioa:** Antza S.A.L.  
**Harpidetzak:** Iraitz Agirre.  
**Salmenta:** Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.  
**Idazkaritza:** Aloña Sorraluze, Bego Zuza.  
**Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.  
**Web garapena:** Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.

**HELBIDEAK:**  
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.  
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.  
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.  
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

**POSTA ELEKTRONIKOAK:**  
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.  
Interneten: www.argia.eus.  
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.  
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

**HARPIDETZA:**  
Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.  
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



## PANORAMA

# Errekaleorrek bizi nahi du

Espainiako Estatuko auzo okupaturik handiena Gasteizko aldirietan dago. Bi urte eta erdi dira ikasle batzuek Errekaleor auzoa biziberritzeari ekin ziotela. Egun 100 laguni baino gehiagori aterpe eta bizipoza ematen dizkio. Desindustrializazioak eta gentrifikazioak ghetto bilakatutako langile auzoan, egun auzolana eta autogestioa sumatzen dira bizitzaren esparru guztietan. Gasteizko Udal Gobernuak dio hor ezin dela bizi, baina Errekaleorreko bizilagunek erakusten jarraitu nahi dute, espazio publikoa berreskuratuz bestelako bizi-eredua sortzea posible dela.

Argazkia: Raul Choren (DosPorDos)



ERREKALEOB

ZATON

REGIA

“Kalkulatzen dugu hemendik hamabost urtera, 2030ean, 6.000 ikasle izango ditugula Seaskan”

Paxkal Indo, Seaskako lehendakaria (Berrian)

[argia.eus/multimedia](http://argia.eus/multimedia)



**Txoministak - “8ak bat”**

Fikziozko web telebista umoretsuaren lehen atala. Euskal Herria salbatuko duen alderdia sortzera doaz Txomin eta lagunak...



**Bertsolaritzaren iragana, oraina eta geroa**

Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio bertsolarien arteko solasaldia Andoaingo Martin Ugalde Foroan.



ELA

# Konponbiderako seinalerik ez Gipuzkoako errepideetan

**Urko Apaolaza Avila**  
@urkoapaolaza

Martxoaren 1ean ekin zioten grebari eta jadanik bi hilabetetik gora daramatzate ohiko lanik egin gabe Gipuzkoako errepideen mantenuaz arduratzen diren hiru aldi baterako enpresa-elkartetako ia ehun langilek. Azpikontratazioak erasandako sektorean 12 orduko lan egunak egiten ari dira, greba deitu duen ELA sindikatuaren esanetan, eta 2009tik soldata izoztuta dute. Gipuzkoako Aldundiak kontzesioak gero eta prezio baxuagoan esleitzen ditu eta enpresek galerak ez izateko langileen baldintzak estutu dituzte. Bestalde, eraikuntzako hitzarmenean daudenez, lan mota horretako berezitasun eta arrisku egoera larriak ez dira kontuan hartzen.

Zuzenean interpelatua izan den arren, foru erakundea hasierako posiziotik ez da mugitu. Hitzarmena aurreko legealdian sinatu zela gogorarazteaz gain, duela hilabete esandakoa berretsi dio astekari honi, hau da, enpresa eta sindikatuari “negoziatzeko” eskatu die. Aitzitik, ELAk dioenez Bide Azpiegitura saila jakitun da enpresetan “negoziatzeko tarterik ez dutela”, esleipenetako “beherapenak” medio, eta ardura Aldundiaren gain jarri du, enpresok errepide publikoetan aritzen baitira.

**Maiatzaren 13an zita Donostian**  
Langileak egunero ari dira protestan, baina instituzioetatik konponbiderako seinalerik ikusten ez dutenez mobilizazioak bizkortuko dituzte. 13an ekitaldi handi bat antolatuko dute Donostian, aldarrikapenak errepide bazterretik kalearen erdira eramateko.

## “Nire amaren heriotzak agerian utzi du Hondurasko ustelkeria eta militarizazioa”

**BERTA ZUÑIGA CÁCERES, BERTA CÁCERES EKINTZAILE EKOLOGISTAREN ALABA**

Amaren heriotza Hondurasko Gobernuari eta Gualcarqueko ibaieko Agua Zarca proiektu hidroelektrikoa sustatzen ari den DESA enpresari leporatu die Zuñigak. “Nire amaren heriotza ez da ekintza isolatua. 2009ko estatu kolpeaz geroztik Hondurasko Gobernuak martxan jarri duen errepresioaren parte da”, azaldu du. Errepresio horrek “areagotu egin du enpresa multinazionalen eragina” [ELDIARIO.ES](http://ELDIARIO.ES) (2016/05/03)





# Herri indigenen eta enpresa transnazonalaren arteko gatazken mapa



Axier Lopez ARGIAko kazetaria Nafarroako Legebiltzarrean izan da Mozal Legearen ondorioz jasotako isunaren berri ematen. Alderdi politiko guztietako ordezkariak izan dira, UPN eta PPkoak izan ezik.

## Mozal Legea ez aplikatzeko eskatu dio Axier Lopezek Nafarroako Gobernuari

Xabier Letona

@xletona

Lan saioa EH Bilduren eskariz egin da eta Foru Gobernu babesten duten alderdien sostengua ere izan du: Geroa Bai, Ahal Dugu eta Ezkerra. PSN ere lan saioan izan da eta UPN eta PPko ordezkariak ez dira agertu. Saioa hasi eta berehala Ana Beltrán PPko parlamentariak aretoko atea ireki du, ikusi du nortzuk ziren barnean eta ez da sartu. “UPNkoak ez daudenez, ez da sartu”, aipatu dute saioaren amaieran hainbat parlamentarik.

Lopezek eskerrak eman dizkio Nafarroako Legebiltzarri ARGIA bertan egoteko aukera emateagatik. Isuna nola iritsi zitzaion azaldu du grafikoki. Lehenago Aho-tsa.info-ri egindako mehatxua eta ARGIAri jarritako isuna ez direla kasualitateak eta, besteak beste, kazetaritza independentea zigortu nahi dela aipatu du. ARGIAk isunaren aurrean helegitea jarri duela, ez duela ordainduko eta Mozal Legea desobeditzeko hamaika arrazoi daudela azaldu du.

Mozal Legearen hainbat alor aipatu ditu ondoren: legeak indefinizio maila handia duela eta poliziari arbitrariotasunez aritzeko aukera ematen diola; epaileak ez duela parte hartzen eta, beraz, babesgabe uzten duela kazetaria eta herritarra; eta funtsean, legea injustua dela,

giza eskubideak urratzen dituelako, besteak beste, adierazpen askatasuna eta informazio eskubidea. “601 euro ez da asko –azaldu du Lopezek–, baina honen atzean dagoena oso larria da”. Horregatik, Mozal Legeari “erantzun kolektiboa” eman behar zaiola azpimarratu du. Lopezek hiru eskari egin dizkie Nafarroko Legebiltzarreko ordezkariak: Mozal Legearen aurkako jarrera publikoki adieraztea; lege honen aplikazioa berriz ematekotan, salaketa publikoa egin eta zigortuari babesa adieraztea; eta Nafarroako Gobernuak Mozal Legea ez aplikatzeko konpromisoa bere egitea.

EH Bilduko Bakartxo Ruizek hartu du hitza eta ARGIA eta Lopezi sostengua adierazi eta gero, gogor gaitzetsi du UPN eta PP lan saioa ez agertzea. Geroa Bai eta Maria Solanak ere taldearen elkartasuna agertu die astekariari eta Lopezi. Podesemoseko parlamentari Rubén Belascok gogor salatu du Mozal Legea eta bereziki azpimarratu du bere arbitrarietate maila, poliziaren esku uzten delako zigorrak jartzeko aukera. Izquierda-Ezkerrako Jose Miguel Nuinek aurrekoen bide beretik jo du elkartasun adierazpen eta legearen salaketari dagokienez. PSNko ordezkari Inma Juriorentzat, “legea susmoetan oinarritzen da, poliziari botere gehiegi ematen dio eta disidentea zigortu nahi da”.

### EKONOMIAREN TALAIAN

## ELA eta LABen arteko konbergentzia, egiteke



Juan Mari Arregi

Maiatzaren Lehenean sindikatuek bidalitako mezuen artean bi nabarmendu daitezke: lan prekarietatearen kontrako borroka eta sindikatuen ekintza bateratuaren beharra, borroka hori eraginkorra izan dadin. CCOO eta UGTren arteko ekintza bateratua badago, Gasteizko Mercedesen moduko salbuespen batzuk kenduta. Sindikatu abertzaleen artekoa ordea, ELA eta LABen artekoa nagusiki, oraindik oso urrun dago, kasu jakin batzuetan izan ezik. Zerbait larria badago sindikatu abertzaleen artean, norbere aldetik eta 1995etik batasun hori aldarrikatzen ari eta horretara iristen ez badira.

Espetxean dagoen Rafa Diez Usabiaga LABen idazkari nagusi ohiak, Maiatzaren Lehenaren bueltan inoiz baino indar handiagoz defendatu eta eskatu du ELArekin konbergentzia hori. Sindikalgintza abertzaleak ausera izan behar duela dio Diezek: “Ekintza batasunak ezin du noraezean ibili koiuntura edo gai zehatzen bueltan, horizonte taktiko eta estrategiko sendoak behar ditu, gure militantzia eta afiliazio kapital humanoa modu eraginkorrean finkatu eta aktibatzeko. (...) Ekintza batasuna ez da aukera politiko bat edo taktika sindikal bat (...), sindikalgintza abertzalean dagoen behar kolektiboa da, Euskal Herrian datorren hamarkadan izango ditugun erronkei aurre egiteko”. ELAko idazkari nagusi Adolfo Muñozek, bestalde, esan zuen ELA-LAB aliantzaren potentzialtasuna ez ikustea “miopia ikaragarria” dela: “Klase eta nazio gatazkak sindikalgintza abertzalea interpelatu du, elkarrekin lan egin dezagun”.

1995etik sindikatuak konbergentzia horren alde badaude, euskal langileriarekiko arrotza den beste interesik ote dago konpromiso hori hitz soiletatik harago egikaritu ez dadin?





DAVID LAGERLÖF

## Munduari bira eman dion argazkia

**SUEDIA.** Suediako Borlange herrian gertatu da, Eskandinaviako mugimendu faxistak deitutako manifestazio batean. Ehunka manifestarik hartu dute parte manifestazioan eta buruan doazen bost neonazien aurrean jarri da Tess Asplund, ukabila altxatuta. Suediako Focus African-phobia arrazakeriaren aurkako elkarteko bozeramailea da Asplund. "Pentsatu nuen jende horrek ez zuela hor egon behar. Horietako batek begiratu egin zidan eta nik ere begiratu egin nion. Ez zidan ezer esan, ezta nik ere. Polizia oso azkar ailegatu zen eta baztertu egin ninduten", adierazi du ekintzaileak.

## GuraSOS sortu dute, erraustegiaren aurka

Zero Zabor  
@zero\_zabor

Zubietako erraustegiaren 15 kilometroko radioko haurren gurasoak mobilizatu dira hondakinen errausketari aurre egiteko: GuraSOS elkarte berria aurkeztu dute Lasarte-Orian.

### Bermerik ez

"Zuek bezalako aita-amak, aitona-amonak eta osaba-izebak gara. Erraustegiaren proiektua bertan behera gera dadila eskatzen dugu, gaur egun ez baitago berme nahikorik gipuzkoarren eta bereziki haurren osasunaren gainean", diote.

### Eragin-eremua

200 ikastetxe eta Donostiako Ospitale gune handia daude Zubietaren inguruko 30 km-ko eragin-eremuan, Eusko Jaurlaritzak Zubietako erraustegiari emandako Ingurumen Baimen Bateratuak onartzen duen eragin-eremuan alegia.

### Sinadura bilketa

"Nire haurrentzat nahi ez dudana, beste inoren haurrentzat nahi ez dudalako", sinadura bilketari ekingo diote laster GuraSOSeok, Gipuzkoako Aldundiari eskatzeko baztertu dezala hondakinak errausteko asmoa.

BIGANTXAK



%73

Galdeketa herritarra egin dute Barañainen, jaietan bigantxak askatu ala ez. %73ak ezetz bozkatu du eta %27ak bigantxak ateratzearen alde.

1.907 herritarrek hartu dute parte galdeketa. Udalaren hitzetan, "historikoa" izan da eta "kontsultak Barañainera heldu dira gelditzeko asmoz".



### ABIAN AMAITUTA

Abian prozesua bukatu du ezker abertzaleak eta "indarberriturik" atera dela dio. Barne eztabaida "estrategia independentista berri baten" aldeko erabakiarekin bukatu da.



### ZAS! XENOFIARI

ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarea sortu dute EAEn arrazakeriaren eta xenofobiaren prebentziorako. Erakunde publikoek, gizarte erakundeek eta norbanakoek osatzen dute.



### BANGLADESH-EKO SARRASKITIK 3 URTE

2013ko apirilean, 1.100 langiletik gora hil ziren Bangladesh-eko aropa enpresa batean. Benetton, El Corte Inglés, Mango eta Primarkek azpikontratutako langileak ziren. Hiru urte igaro dira, eta salatu dute multinazionalen jarduna kontrolatzeko mekanismo eraginkorrik ez dela sortu oraindik.

# Nork agintzen du Nafarroan?



Xabier Letona

@xletona

**“BADA, AURKEZ ZAITEZ HAUTESKUNDEETARA!”** Miguel Sanzek 2011n Nafarroako Ahal Duguko Laura Perez idazkari nagusiari Espainiako egungo Erregearen aurrean jaurtitakoa buruan ibili dut egunotan: Eztabaidan jardun ondoren, esan nahi zion gauzak aldatzeko hori zela bidea, baina “bere gloria minutua” izan zuen herritarra gutxietsuz bota zuen esaldia, jardunean ohikoa zuen zakartasunez.

Herritar hura Nafarroako Gobernua hertzera iritsi da gaur egun eta bere indarrarekin gobernua sostengatzen du. Aldaketaren gobernua esaten diote. Eta bere jardunarekin, ikusten ari da zein gaitza zaion gaur egun gobernu bati gauzak aldatzea. Boterearen ingurumaritik bada joera pentsatzeko instituzioek aldatzen dutela gizartea, haiek gizartearen zati bat besterik ez direla gehiegi pentsatu gabe; areago, indar gutxiago edo gehiagorekin, boterearen zatitxo bat dira. Esparru askotan ikusten da hori, baina batez ere dirua behar den horietan –gehienak– eta identitatea edo herritartasunean eragin dezaketan haietan. Nafarroan aldaketak dituen arazoan bi adibide oso esanguratsu izan dira joan den astean ETBekin eta Iruñeko haur eskolekin gertatu dena.

**Orain kontua zen aginte makila noren eskuetan zen erakustea. Gainerakoan, botereak baditu bidezidor ugari nahi ez dituen gatazkak saihesteko**

ETBrena boterekeria zakarra izan da. Ez hizkuntza eskubideak, ez ETBren seinaleak inori trabarik ez egitea, ez Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko protokoloa, ez herritarren gehiengoaren nahia... ezer ez, legea da garrantzitsuena. Berdin dio legea indarrean jartzeak arazo gehiago ekartzea ez jartzeak baino, kontua da legea horixe dela batez ere, lege, aginte, indar, eta noizean behin erakutsi egin behar dela, zakar bada ere: “Astebete duzu seinalea eteteko, bestela ekipoak zigilatuko dizkizut”. Espainiako ministerioek halaxe ebatzen dituzte txikikeria hauek.

*Egin eta Euskaldunon Egunkaria* ixteko Guardia Zibila bidali zuten, orain gutun bat. Emaizta berdina da, haien irakurleek ezin zuten hautazko medioa irakurri eta Nafarroako milaka herritarrek ezin dute ETB hautatu. Eta herritarrari nahi duen komunikabidea irakurtzeko modua ezabatzen bazaio, ez dago informazio askatasunik. Noiz ez dakigu baina, zorionez, ETBkoak izango du bueltarik. Orain kontua da aginte makila noren eskuetan den erakustea. Gainerakoan, botereak baditu bidezidor ugari nahi ez dituen gatazkak saihesteko.

Epaietan hainbatetan agertzen den “errealitate printzipioa” da bidexka horietakoa. ETBren kasuan zeresanik ez, errealitateak aspaldi gainditu du nabarritzen eta lagunuen euskararekiko setakeria, baina oraindik ere hauek badute nahiko botere euskaldunon urratsak geldiarazteko.

**IRUÑEKO HAUR ESKOLEN** afera izan da aste bakarrean botereak agintea non den erakutsi digun bigarren aldia, oraingoan togaz jantzita. Iruñeko Udalak bi haur eskolatan hizkuntza eredu

aldatzeko bideratua duen prozesua bertan behera utzi du Iruñeko Administrazio Auzietarako 2. epaitegiko Antonio Sanchez Ibañez magistratuak. Epaille honek lehenago ere aintzat hartu du estatutaren abokatuaren salaketa eta iazko Sanferminetako txupinazoan ikurrina jarri izana lege iruzurtzat jo du (beste epaile batentzat, aldiz, Tafallako txupinazoan ikurrina argudio berberekin ateratzea ez zen lege iruzurra).

Batzuen eskubideak eta besteenak daude airean haur eskoletako aferan: funtsean hezkuntza eredu, hizkuntza eredu eta zentroa etxetik ahalik eta gertuen egotea. Oraingo beren bi zentroak (Donibane eta Printze Harresia) euskarazko ereduak izango direlako, 10 minutura diren beste bi zentrotara mugitu beharko zuketuen erdal eredu nahi dutenak. Prozesu horrek dakartzan buru haustea baliatu ditu epaileak Iruñeko Udalaren erabakia kaute-laz eteteko.

Hau da, 53 haur eta familien eskubideak babestu ditu, 200dik gorakoenak zanpatzeko, era horretan hauek ez baitute eskubiderik izango ez hizkuntza eredu hautatzeko, ezta etxetik gertuen dagoen zentroa hautatzeko ere. Iruñean 17 haur eskoletatik bi dira bakarrik euskaraz –eskaria %37koa da– eta Udalaren aldaketak aurrera egingo balu lau lirateke. Bistan da, eskubideen jabeak eskubide bakoak baino garrantzitsuegoak dira; hots, erdaldunenak euskaldunenak baino.

Argudioetan lotsagabe jarduten du epaileak, Udalaren argudio teknikoak “ad hoc” egindakotzat joz eta helegitea aurkeztu duen gurasoarenak “gaietako ikerketetan oinarrituak”.

Zalantzarik ez, hauteskundeak irabazi edo ez, botereak botereak baditu milaka aurpegi eta erakutsi egiten ditu. ■

GUK ez dugu gezurrik erraten...



...GUK egitaratekoak dizkizuegu saltzen

SK

# Nuit Debout bidelagun beharrean dabil denak ez dezan berdin jarraitu



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Parisko Republique plazan sortua, hilabete eta erdi bete ondoren Europa osora zabalduko ote da Nuit Debouten olatua? Frantziako hirietako jende prekario baztertuenekin lotura egitea lortuko du? Sindikatuekin betirako haserretuko da? San Juanetarako ahaztuko den amets geratuko? Zer egin, nondik jo, norengandik ikasi eta zeinen hanka sartzea ez errepikatu, eztabaidan ari dira barruan.



Martxoaren 31n hasi zen, aspaldiko film militante ikusiena den *Merci Patron!*-en zuzendari François Ruffin kazetariak eta *Fakir* astekariak deiturik Paris-ko plaza bat okupatzera, sindikatuak François Hollanderen lan erreformaren kontra antolatutako manifestazio handiaren akaberan. Geroztik Frantziako gertakizun inportanteena suertatu da Nuit Debout, hiriburu askotara zabaldu, Espainiako *indignados* jendearekin eta M-15rekin alderatu dute, hedabide nagusietan azaltzea lortu, sare sozialak sutan jarri, poliziaren eraso itsusiak denen begien aitzinean agerrarazi...

Aurrerantzean Nuit Deboutek egin lezakeenaz edo beharko lukeenaz iritzi ezberdinak jasotzeko, *Fakir*rek berak antolatu zuen eztabaida gau luzea apirilaren 20an Parisko Burtsaren antzinako egoitzan, Frantziako ezkerrean izena duten zenbait pertsonalitate bilduz.

Emmanuel Todd historialariarentzako, baliteke Nuit Debout gauza txikia izatea, baina zerbitu orain arteko ezer ezaren erdian. “Begira Occupy Wall Street. Hura gertatuta hilabete batzuetara AEBetan argitaratzen diren inkestetan gazteak Estatuaren eta protekzionismoaren alde bihurtuak ziren. Egia da gaur Bernie Sandersek galdu egin duela Hillary Clintonen aurka, baina ‘sozialismoa’ aldarrikatu du Amerikako Estatu Batuetan eta Occupyk ateratako gaiak gaur kanpainaren parte dira”.

Toddek ukatzen du *bobo* [*pijo, hipster...*] jendearen kontua denik Nuit De-

boutekoa. Gaur adin jakin bateko jendeen artean %40 dira goi diploma baten jabeak, masa dira. Praktikakako *stage*-en errepikatzea, kontratu ustelak, kualifikazio oso handiak dauzkateni pagatzen zaizkien soldata oso txikiak... hori guztia eta fabriken itxiera edo klase apaletako gazteen kontratu prekarioen soka, dena gauza bera da. Bizi-mailaren jaitsiera belaunaldi oso baterako da.

Hona azkenean mobilizazio bat, dio Toddek, 65 urte, azkenean gazteen esku dagoena. “Sufragio unibertsala zaharrek gazteak menperatzeko tresna bilakatu da, zaharrek erabakitzen dute gero haiek ezagutuko ez duten etorkizunaz. Nik borrokatzen dut nire belaunaldia hil dezaten”.

Baina gazteria honen drama da antolatzeari dioten fobia, kezkatzen da Todd. 68ko jendeek *soixantehuitards* frantsesezko argotean, 1968ko maiatz famatuan ibiliak-, deskubritu dituzte indibidualismoaren pozak, baina atzean zeuzkaten beren familiak, taldeetan eskuratutako formakuntza sendoa: Alderdi Komunistan, Elizan, sindikatuetan. Oraingo belaunaldiak, aldiz, dira *“hirurogeitazortzitarra ber bi”*, indibidualista ia ontologikoak. Ez antolatzeko borondatea ia erlijio bihurtu dute.

“Baina ikaragarria da hori, zeren gazteok baldin balekitez zein neurritaraino dauden antolatuta aurrean dauzkaten tipoak, ugazabak, Estatu, Alderdi Sozialista, bankuak... Makinak dira. Eta orenen buru gizon moderatua izanik,

keynestarra, kapitalismo bezatu baten aldekoa naizen honek, gogoan daukat Leninek irakatsitako hura: ‘Ez da iraultzarik antolaketa gabarik!’”.

## “Ez maitemindu zeuen buruez!”

Frederic Lordon ekonomialariak esan die Nuit Deboutekoei, bera baita sustatzaileetarik, ez direla bildu gizarte animazioa egiteko, halako elkarbizitzazko elkarrizketa *guay* batzuk. “Hemen gaudela politika egiteko, ez mundu guztiarekin bakea egiteko, ez dugu unanimitate demokratikorik bilatzen”.

Frantziako plazetan, Lordontzako, ez dira bildu ezer erreibindikatzeko. “Nahi adina manifestazio egin gutxieneko soldata igotzeko, 32 orduak edo gizarte laguntzak zabaltzeko, horrek denak ez du zentzurik izango ez baditugu auzitan jartzen neoliberalismoaren egiturak”.

Harrapaturik finantziarioaren, akziodunen ahalmenaren, librekanbisismoaren, deslokalizazioen eta Europa mailako austeritatearen artean, soldata sistemen aldarrikapen globalek ez daukate aukerarik batera. Sistemaren barruan ez dago alternatibarik, sistema osoa aldatzea da alternatiba. Bi ildo markatu ditu Lordonek.

Batetik, Republique plazako kide bati hitzak hartuta, “hondar aleak” zabaldu denetan, mekanismo guztiak trabatu harea boteaz mekaniketan. Bestetik, ideia indartsuenak azpimarratu eten gabe: elkartasuna, hiri kaskoetako jen-



*Alvinet gunetik hartutako argazkian, militanteak batzarrean Paris metropolitanoaren kasik auzo den Saint Deniseko Nuit Debouten. Hedabideek eta sare sozialek arreta nagusiki Parisko Republique plazako bilkurei –eta liskarrei– jartzen dieten arren, Frantziako estatuan hainbat hiri handitara zabaldu dira eguneroko batzarrak, azken asteotan Europan barrena hedatzeko proposamenak ere entzuten direlarik. Lehen urratsa lorturik, mesprezuak gainditurik herritarren artean eztabaida soziala piztea, ondoren egin beharrekoen inguruan dira orain kezkak, zalantzak eta proposamenak.*

deen, obreroen eta bazter auzoetako gazteen arteko elkartasuna, “horiek denak indar batean bildutakoan inork ezingo die aurre egin”. Eta sistema berriariki beharra, bankuei espekulazioa galarazi, akziodunen ahalmena mugatu, nazioarteko itun hiltzaileak ezabatu...

Serge Halimi *Le Monde Diplomatique*ko zuzendariak gogoratu die Nuit Deboutekoei Slavoj Zizekek esana Occupy Wall Streetekoei: “Ez maitemindu zeuen buruez. Gustura gaude gu hemen. Baina garrantzitsuena da biharamuna, eguneroko gure bizimodura itzuliko garenekoa: zerbaitek aldatuta aurkituko al dugu?”. Haiek uko egin bazieten ordura arte efikazia erakutsitako estrategia eta taktikei, Halimik proposatzen du alde-rantzizkoa egitea.

Zer egiten dute aberatsek, gehiago aberasteaz gain? Gero eta hobeto an-

tolatu, pentsamendu guneak, hedabideak... Elitea ondo koordinatuta dago, beren interesen jakitun, mobilizatua, joko eremuaren jabe eta baita bortxa publikoarena ere. Aldiz, aurrean dauzka kristoren elkarte, sindikatu eta partidu pila, nor bere gunea defenditzen, bere berezitasuna, bere autonomia. “Egia, antolatzeak pizten du instituzioek, politikaren profesionalek, botereak, asimilatuak izateko susmoa. Baina aliantzarik gabe, matxinada espontaneoek, ekintzak ezingo du lortu gizartea aldatzerik”.

Lehentasanak aukeratzen hasita, bi proposatu ditu Halimik. El Khomri legea desegitea eta nazioarteko TTIP eta beste itun librekanbistei bidea ixtea. Kasualitatez, biak batera egokitu direnez, Halimik uste du posible dela kontrako aliantzan elkartzea obreroak, ekologistak, nekazariak eta kontsumitzaileak.

“AEBetan udal funtzionarioak eta suhiltzaileak ere elkartu zaizkie. Azkenean denak ohartzen baitira batzuen eskubideak galtzeak laguntzen duela besteek ere galdu ditzaten”.

Ruffin su piztailea bera kezkatuta omen dago, zehazki Parisko Republique plazakoarekin: “Gure asmoa zen herri txikietako supermerkatuetako langilearen hitza helaraztea hiriburuko langabeei bezala Frantzia periferiko ikusezin eta ahaztuan garbiketa eta asistentzia lanetan ari diren emakumeei, eta paradoxa da Nuit Deboutek berriro estaltzen dituela. Halako lurrin antisindikala sumatzen da, sindikatuak ez direlakoan aski gazte, berri eta cool”.

Eta *Fakirren* eskegi dute Podemoseko Pablo Iglesiasek 2014an emandako hitzaldi bat, nondik jo pista bat emateko: “*La pelea por el sentido común*”. ■



zuri begira



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com



Anabel Arraiza, aktorea

# «Elkartasunaren bidez euskarara hurbildu nahi ditugu behar bereziak dituzten haurren familiak»

Irrien Lagunak klubeko Ane Pirata da Anabel Arraiza aktore eta musikaria. Irrigintzan eta herrigintzan batera aritu daitekeela erakusten digute irrizaleek.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

## Noiz jarri zinen lehen aldiz kameraren aurrean?

Ama San Fermin ikastolako andereñoa zen, Iruñean, eta han ikasi nuen. Batxilergoa egiten ari nintzela, egun batez Mirentxu Purroy casting bat egitera etorri zen. Musika ezagutzak genituenok aurkeztu ginen eta *Denboraren gibelean* filmean parte hartzeko aukeratu ninduten. Handik gutxira ikaskide nuen Asier Andueza etorri zitzaidan esanez ETBn *casting* bat egiten ari zirela telesail berri baterako eta hara joan ginen biok. 1994ko udan egin genuen proba. Bukatu berria nuen UBI eta Lakuntzako igerrilekuko taberna kudeatzen nuen. Han nengoela deitu zidaten hartu nindutela esateko. Beraz, unibertsitatara ordez, *Goenkaler*a joan nintzen. 18 urterekin hasi eta zortzi urtez aritu nintzen. Ondoren bi urte egin nituen *Sorginen Laratzean*. Telebistako hamar urte horiek nire gaztaroa izan ziren. Hamaika gauza egin nituen nik.

## Gogorra izan zen?

18 urterekin nola izango zen gogorra? Goizeko zazpitan hasten ginela izaten zen txarrena, besterik ez. Amak autoz eramaten ninduen Irurtzuneraino, han *Roncalesa* hartu eta Leitzaaran osoa, mendatea gora, mendatea behera, Donostiaraino. Eta gero, Miramoneraino

iristeko taxia hartzen nuen egunero. Halako batean, konfiantza pixka bat hartuta, makillatzen ari ginela, lankideei eskatu nien esateko mesedez zein zen Miramonera joateko hartu behar zen *Vilavesa*. Noski, ez zidaten ulertu.

Lana oso dibertigarria zen. Jolas modukoa niretzat. Makina bat aldiz joan nintzen lo gutxi eginda edo batere lorik egin gabe, baina gidoiak ikastea ez zen batere zaila niretzat.

## Zer gertatu zen Sara, zure pertsonaiarekin?

Ez dakit. Desagertu egin zen, besterik gabe. Denboraldiaren amaieran Joseba medikuarekin ezkondu eta nengoan eta haur bat adopzioan hartu berria genuen. Hurrengo denboraldiaren hasieran hantxe zeuden Joseba eta haurra, baina Sararen arrastorik ez. Gero Josebak izan zuen beste bikotekide bat... Hil, ez nintzen hil, baina Sara non dabilen, auskalo! Hautsa kentzen Arraldeko txokoren batean, agian!

## Zein izan da *Goenkaler*en ekarpenik handiena?

*Goenkale* talka handia izan zen, bere garaian horren modan zeuden Hego Amerikako folletoiekin lotzen genuelako. Horregatik askok gutxien zuten, jendaurrean bederen. Baten batek esaten

zidan berak ez zuela ikusten, baina gero Sara deitzen zidan.

Bestalde, *Goenkale*k jende askori lana eman dio. Oro har, esan daiteke *Goenkale* eskola izan dela. Eskola ona. Ni, adibidez, ez nator antzerki eskolatik, baina egunero-egunero hainbeste profesional onekin lan egiteak asko erakusten ditu. Telebistak gainera, badu lotura puntu bat. Nik maite dut. Zinema pixka bat probatu dut eta gustatu zait nola imatzen dituzten gauza guztiak, baina telebistak xarma handia du.

## Euskararentzako ere garrantzitsua.

Gertuko hizkera zen. Hika, esate baterako, ordura arte apenas entzuten zen telebistan eta *Goenkale*n maiz erabiltzen zen. Hasieran, batzuentzat hotz suertatzen bazen ere, euskara ikasten ari zirentzat edo oso giro euskaldunetan bizi ez zirentzat lagungarria izan da *Goenkale*.

Lehenengo ataletan nafar bakarra nintzen, gero Iñaki Perurena sartu zen eta geroago Matxin. Niri esaten zidaten Lakuntzako hizkera erabiltzeko, baina oso zaila egiten zait lakuntzarra ez den norbaitekin horrela hitz egitea. Errazago egiten zait besteen hizkeretara moldatzen saiatzea. Izan ere, lankidea ondarroarra dut orain eta *whatsapp*ez ondarroeraz saiatzen naiz.



## Anabel Arraiza

1975, Lakuntza

Gaztetxo zela aktore hasi zen zineman Mirentxu Purroyren *Denboraren gibelean* filmean. Telebistara egin zuen jauzi eta zortzi urtez Sara izan zen *Goenkale* telesailean. Ondoren *Sorginen Laratza* saioan aritu zen bi denboraldiz. Musikari gisa bi disko kaleratu zituen Triki ta ke taldearekin. Gaur egun bi antzezlanetan ari da eta Irrien Lagunak klubeko kidea da. Ane Pirata da jendaurreko emanaldietan eta, horrez gain, ekimenaren eta aldizkariaren kudeaketan dabil buru-belarri. Behar bereziak dituzten haurren familien Euskal Herri osoko 30 bat elkarterekin ari dira lanean irrizaleak, Bizipoza elkartasun sarea ehuntzen.

### Zergatik utzi zenuen telesaila? Ala utzi egin zintuzten?

*Goenkale* n nintzen bitartean kolaborazioak egiten hasi nintzen *Sorginen Laratzean*, baina hor bazegoen lehia moduko bat. *Goenkale* Pausoka ekoiztetxekoa zen eta *Sorginen Laratza* ETBren produktua, eta bien buruek talka egiten zuten. Nik behintzat hala hartu nuen. Horregatik, *Sorginen Laratzean* kontratua egitea proposatu zidatenean bata edo bestea aukeratu behar izan nuen. Hala ere, oso ongi bukatu nuen *Goenkale*koekin eta talde osoarekin.

### Eta *Sorginen Laratzean*?

Badut arantza sartuta. Lanean bi urte igarota haurdun gelditu nintzen. Abuztuan jaioko zen haurra eta nik ekainean aditzera eman nien prest nengoela irailan itzultzeko, baina orduko zuzendariak esan zidan hobe nuela etxean gelditu alaba zaintzen. Haurrak eskertuko zidala. Horrek bai, mina eman zidan. Gainera telefonoz esan zidan.

### Gizona zen zuzendaria?

Ez. Emakumea.

Horrek erre egin ninduen eta telebistatik urrundu nintzen, baita han ezagututako jendearengandik ere. Nire haurrak neuk hezteko erabakia hartu nuen. Hiru haurrak koskortutakoan hasi nintzen berriro lan munduan kukuak egiten. *Arratsaldero* saioan kolaboratuz bartzuk egin nituen, adibidez.

### Musikaria ere bazara.

Bai. Txikitatik ikasi dut akordeoia Altsasun, Lakuntzan eta Barañaingo kontserbatorioan. 14 urterekin jada hasi nintzen sosak irabazten kintoen festetan edo inauterietan. Gero ezkontza, bataio eta jaunartzetan hasi nintzen jotzen talde batean. Teklatuak jo eta abestu egiten nuen.

Geroxeago Triki ta ke taldean sartzea eskaini zidaten. Imanol Goikoetxea urdiaindarra zebilen eta berak deitu zidan. Bi disko grabatu genituen eta hiru urtez aritu nintzen haiekin, haurdun gelditu nintzen arte. Erruaren parte bat taldeko baxu jotzailearena izan zen [irriz dio]. Hiru seme-alaba ditugu, zaharrenak pianoa jotzen du, bigarrenak akordeoia eta txikiena laster bateriarekin hasiko da. Taldea antola genezake etxean!



### Irien Lagunak klubera nola iritsi zinen?

Zenbait pertsonaia egiteko aktoreak behar zituztela zioen iragarkia ikusi nuen *Berrian* 2011n. Nik proiektua ezagutzen nuen bazkideak ginelako eta curriculumaren partez mezu bat bidali nuen esanez "Anabel Arraiza naiz, aktorea eta musikaria, telebistan eta antzerkian aritua, eta hiru seme-alabaren ama". Berehala deitu zidaten eta Mari Kalanbreren pertsonaia gorpuzten hasi nintzen.

## Pailazoenganako magia

Pailazoenganako magia 8-9 urtera arte luzatzen da. Gero haurrak urrundu egiten dira eta 16 urterekin berriro itzuli *Maite zaitut* gurekin kantatzera.



### Zure haurrak ez dira jeloskor jartzen ama partekatu behar izateagatik?

Saioa egin eta gero, haurrekin gelditu eta guztiei muxuak emateko ohitura dugu. Gure haurrak ni ikustera etorri ziren lehen aldian, han egon ziren zain, denak pasatu arte. Gero txikiak besarkatu ninduen estu-estu eta ezin askatu, "hau nirea da" esanez bezala.

### Zer egiten duzu orain ekimen honetan?

Ai, zer ez dudan egiten nik! Orain Piratarekin buru-belarri nabil eta familia giroko dantzaldia egiten dugu. Nire bi alderdiak batu ditugu: aktorea eta abeslariarena. Oso gertuko lana da, oso polita. Ezagutzen dituzu haurrak, familiak, hainbat egoera...

Edozein modutan ere, gure ardatz nagusia aldizkaria da. Haurrentzako argitalpenei dagokienez, hutsune bat zegoela ikusi zen. Guk gure garaian *Ipurbeltz* izan genuen, adibidez, baina orain mota horretako aldizkaririk ez zegoen, eta garai digitalean bizi arren, paperezko euskarria adin horretan oso garrantzitsua da. Aldizkaria argitaratzeak berarekin dakar sustapen lanak egin behar izatea: sare sozialetan zabalpen lan handia egitea, webgune bizia izatea...

Guk transmititu nahi ditugun baloreak dira elkartasuna, auzolana, bizikidetzeta, natura, osasuna, kultura, euskara eta zientziaren aldeko jarrerak. Klub hau balore horiek transmititzeko eratu zen eta helburu horrekin sortu ziren pertsonaia guztiak: Tiritatxo, Ane Pirata, Mari Kalanbre, Martin Bertso, Larga-bista...

### Bizipoza elkartean ari zara.

Horrekin guztiarekin batera, urtetan landutako elkartasun harreman guztiak



Aktorea eta musikaria Ane Pirata da pailazoaren ekitaldietan. Argazkian Porrotxekin.

GOIENA

mantendu eta sustatzeko gogoia gorpuzten joan zen eta Bizipoza elkarte eratu genuen gizartegintza alorrean. Gaur egun 30 elkarte daude, behar bereziak dituzten haurrak eta haien familiak osatutakoak. Haur horien bizi-baldintzak hobetzeko lan egiten duten mota askotako elkarteak dira. Gaixotasunak dituzten neska-mutikoak dira edo bestelako familia ereduak, Espainiar Estatu mailan lan egiten dutenak edo Euskal Herrikoak. Mota askotarikoak. Harremanak sustatzen lan handia dago eta pertsona bat dago orain taldean soilik horretaz arduratzen dena. Elkarteek lan izugarria dute haien egunerokoan eta guk nahi duguna da haien errealitatea gizarteratzea, detektatzea zer behar afektibo eta materialak dituzten, eta pentsatzea

nola lagun diezaiekegun. Azkena Nafarroako Chrysalis Adingabe Transexualen Familien Elkarte sartu da.

### Zer egiten duzue elkarte horiekin?

Boluntario sare zabala dugu, haien artean Hik Hasi bezalako talde handiak. Beharrak dituzten elkarteak eta lanerako gogoia duten boluntarioak harremanetan jartzen saiatzen gara. Beraien baloreak oso garrantzitsuak dira, gure gizartean ere bai, eta elkartasunaren bidez euskarara hurbildu nahi ditugu familia horiek guztiak. Pailazoek askotan esaten dute: herrigintzatik sortu ginen, irrigintzan gabiltza eta harrogintzaz egiten dugu. Oso txikiak gara, euskal hitzunik ere gutxi garelako, baina ahal duguna egiten dugu.

**Zer da Udal Irrizaleen Sarea?**

Udalen artean josten ari garen sarea da, proiektuarentzako sostengu ekonomikoa lortze aldera. Laguntzaren truke gure aldizkaria eskola guztietara eramateko aukera eskaintzen diegu. Ematen du mundu guztiak ezagutzen gaituela, baina ez da egia eta gainera jendea oso nahasita dabil. Aldizkaria Pirritx, Porrotx eta Mari Motots baino gehiago da. Katxiporreta pailazo taldearekin batera, Elkar argitaletxeak eta Berriak osatzen dute Irrien Lagunak. Gurekin elkarlanean hamaika elkarte ari dira: Elhuyar, Urtxintxa, Txatxilipurdi, eta abar.

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots antzezlanetan aritzen dira eta batzuetan Irrien Lagunak klubaren zenbait emalditan hartzen dute parte.

**Baina Porrotx leku guztietan dago.**

Egia da Porrotx mila lekutara joaten dela. Bi saio arratsaldean, eta goizean Seaskakoekin arituko da bera bakarrik beste saio bat egiten. Nik ez dakit egunean zehar zenbat aldiz margotzen duen aurpegia. Joxe Mari izugarria da!

**Zenbat lagun ari zarete lanean?**

Bizipozan bat eta Irrien Lagunak klubean hiru. Gutxi gara, eta gainera, ikusten ez den lan handia dago: bilerak, txostenak, administrazioko tramiteak...

**Hori gutxi ez eta bi antzerki lanetan ari zara.**

Bai. Iaz, hiru hilabeteetan biak estreinatu genituen: bat dramatikoak *Zu gabe* eta bestea komikoa *Ekotikopatetikobikoa*. Dramatikoa eskaini zidatenean beldurrez hartu nuen umeen munduan murgilduta nagoelako orain. Gainera, lanzen duen gaia minbizia da. Nire aita

**Azken hitza: Elkarlana**

Bizipoza Elkartean hainbat behar dituzten hauren familien 30 elkarte biltzen dira. 4.000 familiaz ari gara hitz egiten, eta elkarrekin indar handiagoa egiteko aukera dugu. Adibidez, Guk Real Sociedad Fundazioarekin hitzarmena sinatu genuen, eta gerora fundazio horrek Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioarekin beste hitzarmen bat egin zuen. Horri esker Gipuzkoako haur guztiak kirola egiteko aukera dute. Proiektua gauzatzeko harremanetan jarri genituen bi aldeak. Batzuetan ezagutza-falta dago, baina argi dago elkarlanean oso emaitza onak atera daitezkeela.

duela bost urte hil zen minbiziak jota eta entseguak oso gogorrak izan ziren, dena nahasten zitzaidalako, baina oso ongi etorri zitzaidan. Sentimendu horiek guztiak dantzan izatea oso positiboa izan da. Beste lana oso dibertigarria da. Ordubetez ongi pasatzeko aukera.

**Nola definitzen duzu zure burua?**

Marisaltsera naiz. Gauza berriak probatzea gustatzen zait eta gainera euskaraz bada, bikain. Agian nik baino gehiago dakienari utzi beharko nioke gauza batzuk egiten, baina tira.

**Edozertan ematen duzu izena?**

Agian bai. Munduko lehen Emakume Mendi Maratoia egin zen iaz Sunbillan eta megafonia bidezko kontakizuna egiteko eskatu zidaten. Nik ez nuen ideiarik ere, baina mikroa hartu eta hor aritu nintzen isildu gabe, gustura, azkena iritsi arte.

**Zer egiteko gogoa duzu?**

Nire proiektua musikan. Baina ez daukat denborarik sormen lanetan murgiltzeko. Ideiak baditut, baina denborarik ez. Bestalde, adinekoentzat ere zerbait eginen nuke gustura, baina oraindik ez dut oso garbi.

**Telebistara itzultzeko gogorik?**

Bai, baina telebistan ez da ia deus ere produzitzen. Ez dut gertutik bizi, baina lehenagoko baldintzak orain ez daude jada. Saioren erredakzioan lau katu ari dira lanean, eta gainera haiek beraiek dira produkzio lana egiten dutenak eta saioa aurkezten dutenak. Horretara ohi-tzen bagara, gero nork altxa hori? Ez zait gustatzen egiten ari direna. Platoak hutsik daude eta diru guztia oso saio gutxitara joaten ari da. ■

# Futbol 7

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIEN ALDE

MAIATZAK 28 / HENDAIA

XIII. EDIZIOA

futbol7.hendaia@gmail.com



# Zapalduen hiztegia

J aio bezain pronto hasten da kontua. Izena jartzen digute eta izen horrekin identifikatu behar dugula erakusten digute. Gainerako berba guztiak bezala, izenak ez dira adierazle neutroak, bakoitzak badu bere lurrina eta bere mundu ikuskera. Bilgune Feministak eta Emagin elkarteak kaleratu berri duten *Izena eta izana ezbaian: gida praktikoa* liburuxkak errealitate hori agerian jarri du. Izen askok genero-marka nabarmena dute, pertsona izan-go denaren nolabaiteko aurreikuspen edo proiektzioa, egokituko zaion rola.

Bide beretik doa abizenarekin, alegia, deitura soziala izango den horrekin, gertatzen dena. Aitarena lehenbizi jartzearen alde egiten dute bikote heterosexualek gehienek. Ikuspegi erabat androzentrista nagusitzen da: arrunta aitarena lehenengo joatea da, hori da norma, amarena jartzea gizonetzkoari "berez" dagokion eskubidea kentzea da. Hor hasten da boterearen, estatusaren eta prestigioaren eraikuntza sinbolikoa. Familiaren nukleoa aita dela eta mantendu beharreko ondarea gizonengandik datorkigula irudikatzen da.

Gerora, hitz egiten irakasten digute eta boterearen hizkera gure diskurtsoaren jabe egiten da. Konturatu gabe, berba egiten dugun aldiro aurretik ezarritako posizio politiko, ideologiko eta morala erreproduzitzen dugu. Edozein eremuko diskurtsoetan topa daitezke horren zantzuak, baita jardun politikoan eta ekonomikoan ere.

Ciudadanos izeneko alderdia sortu dute berriki, izenean bertan populazioaren –eta hortaz boto-emaile potentzialen– erdia kanpoan uzten duen alderdia. Hemen eta orain sortu da. Hemen? Non? Hemen, Espainian? Denboran urte gutxi batzuk atzera eginez gero, horrelako esaldia erabiltzen zuenaren jite ideologikoa agerian



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Denboran urte gutxi batzuk atzera eginez gero, horrelako esaldia erabiltzen zuenaren jite ideologikoa agerian geratzen zen: espainolista, konstituzionalista, unionista... edo "demokrata"?

Gaur egun, ordea, erlaxazio terminologikoa sumatzen dut inguruan, ez da arraroa lelo abertzalea soinean daraman ikasleari tankera horretako esaldi bat entzutea: "Hemen, Espainian..."

geratzen zen: espainolista, konstituzionalista, unionista... edo "demokrata"? Gaur egun, ordea, erlaxazio terminologikoa sumatzen dut inguruan, ez da arraroa lelo abertzalea soinean daraman ikasleari tankera horretako esaldi bat entzutea: "Hemen, Espainian..."

Nolanahi ere, akritikotasunak alor ekonomikoko hitzekin jotzen du goia.

Zenbat eta botere guneetatik hurbilago, orduan eta hitz tekniko eta ulergaitzagoak erabiltzen dira. Bada, horrek ez du galarazten gure egunerokoan txertatzea, barruan daramatenari erreparatu gabe. Milaka adibide jar genitzake, eufemismogintza eta hizkeraren perbertsioa etengabeak baitira jardun ekonomiko eta enpresarialean, baina horra gaurkotasun handia duen bat: zoritxarrez ia egunero entzun edo irakurtzen dugu han edo hemengo enpresan "lan erregulazioko espedienteen" edo "ERE"an daudela, ohikoa den gaztelaniazko akronimoa baliatuta (zapalkuntzak baditu milaka aurpegi). Zergatik erabiltzen dugu patronala zuritzeko sortutako eufemismo hori?

Ohartu gabe hauxe onartzen ari gara: enpresa gaizki doa, hortaz, egoera erregulatu behar da. Benetan al doa gaizki enpresa? Eta gaizki badoa ere, hori "lana erregulatu" al da? Zergatik ez diegu "kaleratze" deitzen? Eta zergatik patronala eta ez matronala? Gure hizkerak errealitatea egituratzen eta sortzen duela onartzen badugu, hitz egiteak ariketa autokontzientea eskatzen du. Zer diogu hitz egiten dugunean? Nahi duguna edo nahi dutena? Nik neuk, behintzat, eskertuko nuke zapalduen hiztegi bat osatuko bagenu, boterearen diskurtso hegemonikoetatik at bizi eta pentsatzeko aukera emango digun hiztegia. Burujabetza lexiko eta semantikoa da bide bakarra. ■

# Zentinelak ez daitezela lokartu

**D**iotenez, HELEPi buruz Hautesien Kontseiluak Baionan berriki burutu ekitaldian, ez omen zen euskaraz hitzik ere entzun, euskaldun anitz han berean zirenean. Nihaur ez nintzen han, bizkitartean ez nau batere harritzen, zoritxarrez.

Zenbakien argira, Herri Elkargoa sortuko da. Hasteko, aldarrikapen historikoari erantzunen zaio, eta hortik bide batzuk posibleak bihurtuko ditu, lurraldea kudeatzekoak; bertakoek erabaki politika garatu ahalko dute, eta Iparraldearen izenean mintzatu.

Harago, deus gutxi beraz. HELEP oraino proiektu lausoa delako, kompetentzia anitz kudeatu beharko dituelako, batzuk premia handikoak (fiskalitatea, lurralde antolaketa, arlo ekonomiko eta sozialak) besteak opzioak. Luze joko du euskarari doakion puntua tratatua izan aitzin eta auskalo nola.

Etorkizuna ezin iragarria da baina gezurra litzateke pentsatzea Elkargoak euskaldunei leku hobea eman diela, horretara joatea, inguratzeko gaituzten deabru guztiak ez balira bezala jokatzea. Inkontzientzia litzateke pentsatzea hizkuntzen arteko kohabitazio pazifiko elkar aberasgarria dela sortuko, bat-batean, menpekotasun egoera glotofagiakoa haizaturik.


Ez omen zuten euskaraz egin HELEPi buruzko aurkezpen saioan. Hainbat gaixto. Zoritxarrez, gure iragan hurbilari eta gure esperientziei beha, gisa bereko adibideak ez dira falta, frogatzeko borondatea egon den lekuetan ere, egoerak ez direla gure itxaropenen heinekoak gertatu. HELEPen defendatzaile sutsu, Baterako kide, abertzaleen bozekin hautatua izan den Etxegarai Baionako auzapeza boterean denetik, zer da konkretuki eta iraunkorki aldatu dena Baionan euskarari doakionez? Euskal Kulturaren plazaratzearen aldetik? Ez dut kanbiamenik sentitu. Biarritzen?



Bea Salaberri

EUSKARA IRAKASLEA

@beatxo



Antton Olariaga

Euskararen biziberritzerako pausoak molde koherente eta antolatuagoan eman ziren, baina euskararen egoeraren aldaketa nabarmenik eragin al du? Hego Lapurdin, Hendaian, hizkuntza gutxituen topaketa antolatu zenean, euskalgintzako kideak frantsesez mintzarazi ziren. Eta, gehiago dena, azken horiek zepoan erori. Egunero, dela herriko etxean, dela administrazioko edozein bulegotan sartzean, sekulako buruko minak pizten zaizkit ezin identifikatuz non eta zeini euskaraz egin diezaiokedan, eta egun txarra dudanean, erdaraz egiten dut, daitort.

Hots, azken urteetan, euskal jendar-tearen mobilizazio eta kanpainak, erakundeetako erabaki, plangintza eta ele ederrak ez dira faltan izan eta hauen ondorioak ez dira begi-bistakoak, anitzetan itxurakeria eta zuritzearen kutsua ere badute. Gainera, maiz, euskaldunok, higaduraz, lotsaz, auskalo, uzten diogu horri gertatzen. Etengabeko ukoa eta gutxiespenaren aitzinean, nekeziak bizitzearen bortxaz, gure zuziak ahultzen baitira, gure suak epeltzen, auto-zentsurak eta auto-lotsak ager baitzaizkiguke.

HELEP ala ez, zentinelak beti iratzarrik egon beharko du. Orain arte bezalatsu, ez baitu egiturak ekarriko aitorten linguistikorik, euskaltasuna ez baita egituraren erdigunean, areago eta harago, bailiteke oztopo bihur dadin. Oroz gainera, euskararen geroa ez baita frantses egitura administratibo baten gain, esperantzetan, utzi beharko sekulan. Hizkuntzaren etorkizuna herriaren eta hiztun bakoitzaren esku baita. Beti adi eta kritiko segitu beharko dute euskararen defendatzaileek, zentinelak lana egiten, animatzen, gizartea interpelatzeko eta mobilizatzen, baita euskaldunen komunitatea aktibatzen ere. Sekula ez bezala, engaiamendu pertsonala, inguruan eragitea eta aktibismo puntua beharrezkoak dira. ■

## Kalabazie etaa



Ramon Etzezarreta  
PSE-EE-KO KIDEA

**D**uela hiru bat aste *El Diario Vasco* eguneroko donostiarrak lau bat orri eta portada eskaini zizkion euskal zineko hurrengo arrakasta izatera deitua egon daitekeen pelikulari. Ez zen esplizituki esaten zein zen filmaren hizkuntza. *Aundiya* ote zuen izenburua eta Migel Joakin Eleizegi, Altzoko Handia, zuela gai nagusia.

Filmaren hizkuntzaren galdera iltzatu zitzaidan garunetan, *Aundiya* izenburua izan zitekeen gaztelaniaren euskararekiko joeretako baten ondorio, euskaraz irakurtzen ez duen horietako batena, “*siempre he oído aundiya*”, edo egun euskararik ustez txokoenekoenari ematen ari gatzazkion gainbalio esplikaezin horren ondorioa, benetako, jatorra, adierazkortasuna duena, euskara jaso edo landuarekin zerikusirik ez duen hura dela erabakia dugula ematen baitu aspaldi honetan, eta zinean baino areago komunikabideetan.

Sinatzailea ezagututa, zitekeena zen hizkuntza aukeran erreparatu ez izana eta ez nuen hura irudikatzen *aundiya* bezalako hitz bat, hizkiz hizki, nola zen galdetu gabe idazten. Ezaguna nuenez dei niezaiokeen eta galdetu zein hizkuntzatan zen. Baina erreparoa ematen zidan, erreparo handia. Orain ere, oraindik ere, euskaldunok lehen hitzetik nahaspilatuta, lehen hitzetik bertatik erabaki garbi bat adierazi ezinik. Lotsa ere ematen zidan, nola esplikatuta hari filmaren izenburu egokirako egon zitezkeen hizkuntz zalantza eta kezka filologikoak.

*Aundiya* bezala, *aundia*, *aundixa*, *aundiye*, *aundi-xe*, *aundie* izan zitekeela, eta, endemas, horietako bakoitzari hatxe bat ezarritz gero hasieran, aukerak dozenara iristen zirela. Esan ezin niezaiokeena zen hori gurearen aberastasun seinale zela, ugaritasunarena, oparotasunarena, berak seguru jakingo baitzuen gure ideia garbitasun falta patetikoaren lekukotasuna besterik ez zatekeela ugaritasun hori.

Hizkuntzaren aberastasuna, komunikagarritasuna, horretan dago nonbait: argitalpen lokalak ustezko bertako azpieuskalkian idaztean, bailara jakin bateko aditzaren paradigma bateratua erabiltzean aditz batuaren paradigmaren orde, bizkaiera batua bezalako bat asmatzean eta publikoki praktikatzean, guztiok ordaindutako barria errotuluari e miserable bat ez opatzean, bertsolarien gai jartzaileak euskaratik euskalki bezalakoe-tara ihes egitean, euskara batua, esan gabe baina, Saizarbitoria, Txillardegi, Atxaga, Cano, Izagirre, Lertxundi eta gainerakoen baimenarekin, *Argia*, *Berria* eta konpainiarekiko mesprezu osoarekin, praktikan komunikagarritasunik ez duen traste zaharkitu bat dela tazituki aitortzean.

Egin dezatela administrazioak, eskolak eta gainerako bazter aspertzaila batzuek euskara batua, besteok euskara jatorra egingo dugu, komunikagarria. Hori bai, ojo!, ez joan hiztegira esanahien bila EGAn kalabaza emango badizute ere... *kalabazie etaako deu, mou jator askuen*. ■

## Dédé



Joanes Etzebarria  
KAZETARIA

**K**afe bat otoi. Neskenegün (larunbat) goizean, Mauleko merkatura joan ala ez joan, Dédéren ostataua zen hitzordu nagusia. Zerbait enpresaburu, auzapeza, laborariak, postuetako saltzaileak, gazteak, haurrak... Kafetik hasi eta eztabaidak luzatzeko *kubatak* galdetu arte. Irriño bat eta espantu guti nagusiaren ahotik.

Bere Amerikako ibilbideaz galdetuz gero, ihardesten zuen ilusio izpi bat agertzen zitzaiola begi zolan. Zesta-puntak eraman zuen hara, ostatuak ekarri zuen herrira. Trinketa hurbil, pilota munduaren hitzordu ere bilakatu zuen bere ostataua. Lehenago dantzaleku izana, gibeledu

gela erraldoia artisen noizbehinkako hitzordu ere bilakatu zuen. Sekula espanturik gabe, sekula sos irabazien gibeledetik ibili gabe. Udan, ostatu pareko frontoia partida beroen hitzordu ere bilakatu zuen, terrazan gehienik lekuko ikusleak, eta beste aldean gehienik turistak jartzen zirelarik.

Xiberoa hain da ttipia, hitzordu anitz pertsona bakar batzuek antolatzen dituztela. Karisma zerbaiten inguruan jendea biribilkatu eta giro kolektibo bat sortzen dute. Dédé halakoa zen, eta joan zaigu. Beste plaza batean dugu hitzordua orain. Eskerrik hanitx eta adio. ■

# Nafarroako euskalgintza

**N**afarroako aldaketak sarri urtea beteko duen honetan, argi dago ez dela bide samurra izan euskararen inguruko aldaketa. Ukaezinezkoa da pauso nabarmenak eta arras garrantzitsuak eman direla, eta baliteke ohartu ez izana aldaketa horietako batzuen garrantzi handiaz (Sarrigurenen, D ereduarendako ikastetxea ezartzea, konparaziora), baina aldi berean, azken hilabeteok ederki erakutsi digute Parlamentuan ez dagoela gehiengorik haratago joateko; euskarari buruzko legea aldatzeko, adibidez. Bertzela erranik, aldaketaren alde agertutako indar batzuk ez daude legea aldatzeko prest, eta hori guztiz nabaria da Ezkerran, baina baita Ahal Duguko sektore batean ere. Azken buruan, indar horiei bozka eman dietenen artean atzematen diren jarrera berberak agertzen dituzte; erran nahi baita, aldaketaren aldeko bozka eman duten herritar aunitz nerbiostu egiten dira euskararen gaia mahai gainean paratu bezain laster, eta euskararen alde proposatutako neurri oro jartzen dute zalantzan. Kontua da horrelako jendearen beharra dugula aitzina jotzeko, baina aldi berean haiek dena baldintzatzen dute, hau da, haiek erraten dute noraino iritsi. Eta kasu, aldaketaren aldeko sektoreren bat egon



Enrike Diez de Ultzurrun Sagalá

ITZULTZAILEA

**Kasu, aldaketaren aldeko sektoreren bat egon da euskararen inguruan antolatu diren diskurtso zaharberitu bezain mingarrien atzean, baita karrikan euskararen aurka egin diren mobilizazioen gibelean ere**

da euskararen inguruan antolatu diren diskurtso zaharberitu bezain mingarrien atzean, baita karrikan euskararen aurka egin diren mobilizazioen gibelean ere.

Gauzak horrela, nafar euskalgintzak karrikara ateratzea erabaki du, orain arte hartutako neurrien alde agertzeko, baina aldi berean neurri ausartagoak eskatzeko, "Nafarroan aldaketa euskaratik etor dadin". Beste proposamenik eztabaidatu da euskalgintza barruan, ofizialtasuna gauza ororen gainetik aldarrikatzeko, baina bide hori oraingoz ez jorratzea erabaki da, taxuzko arrazoiak direla medio. Haste-ko eta bat, legearen aferan euskalgintza osoak ekin beharko lioke elkarrekin, bertzenaz bide antzua gertatuko da: hau da, lehenbizi, barne lan bat egin beharko litzateke, batetik, eragileen artean (zer-nolako legea), eta bestetik, Parlamentuan giltza dutenekin, hau da, Ezkerra eta Ahal Dugurekin. Bestela, bi indar horiek konbentzitu ezean, jai dugu. Bitartean, hamaika neurri eraginkor har daitezke egungo lege-esparruaren barnean, aitzina egiteko; euskaltegien eta tokiko euskal komunikabideen egoera hobetzeko, adibidez. Eta era berean, behingoan lantzen hasi beharko litzateke euskararen aurkako mugimendu indartsuari aurre egiteko moduko diskurtso eraberritua, aldaketaren alde daudela dioten herritar ez-euskaltzaleak geure aldera erakartzeko. ■



## Liburu azoka

Ermuan, maiatzaren 19tik 22ra Orbe Kardinalean

### EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi irakurriz!*



ERRAUSTEGIAREN  
AURKAKO MUGIMENDUA

Izena emateko:  
[www.erraustuez.org](http://www.erraustuez.org)

ONKOLOGIKOA - DIPUTAZIOA



MAIATZAK

29

11:30ean

OSASUNAREN  
ALDEKO  
GIZA KATEA  
ERRAUSTEGIAREN KONTRA

ONKOLOGIKOA - DIPUTAZIOA

## “Suminduen” mugimenduaren 5. urteurrena

# PLAZETAN HASI, AGENDA POLITIKOA ALDATZEN BUKATU

2011ko maiatzaren 15ekoak joko kanpo harrapatu zituen Euskal Herriko zenbait eragile politiko. Benetako demokrazia eskatuz plazak okupatu zituzten herritarrek klase politikoa ordezkari-tza-krisian murgildu zuten eta hemen ere sumatu dira ondorioak, Podemos alderdiak jaso dituen botu forman. Bost urte atzera egin dugu tarte honetan gertatu dena ulertzen saiatzeko.



Gorka Bereziartua Mitxelena  
@boligorria

John Reed kazetariak idatzitako erru-siar iraultzari buruzko *Mundua asal-datu zuten hamar egunak* liburukoa da pasartea: alderdi Sozial-Iraultzaileko kide bat haserre ari da hizketan boltxebikeen kontra. Esaten du nekazari-ek ez dutela bat egingo iraultzarekin. Kazetariak galdetzen dio ea zergatik, zein den problema. Boltxebikeek aurkeztu berri duten lurrari buruzko dekretua da desadostasunak sortzen dituen?

–Ah, lurrari buruzko dekretua! –oihukatu zuen sutan–. Ba begira, ba al dakizu zer den dekretu hori? Gure dekretua da, oso-osorik Sozial-Iraultzaileon programa da! Nire alderdiak zedarritu zuen politika hori, lagun nekazarien desioak

xehe-xehe aztertu ondoren. Lotsagarri-keria da haiek aurkeztea...

“Baina zuen politika hori bada” erantzun zion Reedek, “ez ditut ulertzen zure eragozpenak”. Anekdotak erakusten du alderdi politikoen funtzionatzeko modua zein paradoxikoa izatera ailegatu daitekeen: proiektu politiko bat defendatzeko sortuak izan arren, ordezkari-tza-tresna ere badirenez, badirudi batzuetan garrantzitsuagoa bihurtzen dela nork egin dituen gauzak, egiten diren gauzak eurak baino.

Anekdotak balio du ia mende bat geroago Euskal Herrian gertatu zena esplikatzeko ere: 2011ko maiatzaren 15ean, Udal eta Foru hauteskundeak baino as-



tebete lehenago, “Benetako demokrazia orain” lemapean antolatutako manifestazio baten ondoren milaka herritarrek Madrilgo Sol plaza okupatu zutenean, ezker independentistan nagusitu ziren erreakzioek Sozial-Iraultzaileen alderdi-ko kidearen haserrearen antza dute. Espainiako demokrazia falta salatzen zutenen aurrean ezker abertzalearen zentzumen araknidoak “guk hori aspalditik esaten genuen” esanez erantzun zuen. Bazirudien, 1978ko Trantsizioaren kontra borrokan urteak pasa zituen gizarte sektoreko zenbait bozeramailek, interesez baino, mesfidantzaz begiratzen zieten la Espainiako gauzen ordenaren kontra agertzen hasi ziren herritarrei.





OLMO CALVO

Eta irakurketa horren arabera, pixkanaka Espainiako Estatu osoan hedatzen ari ziren kanpaldiak hemengo ez zen agenda politikoari erantzuten zioten –nahiz eta hori neurri batean bakarrik zen egia–. Urte askotako ilegalizazioaren ondoren hauteskundeetara aurkezteko aukera eskura izanda, boto-lehiara bideratu ziren indarrak.

#### Lau hankako mahai zahar hura

Une hartan zaila zen antzematea M15 mugimenduak ekar zezakeena. Bilbo-ko Arriagan, Donostiako Boulevardean, Iruñeko Gazteluko Plazan eta Gasteizko Andre Maria Zuriaren Plazan ere egin ziren kanpaldiak, baina nork uka, Es-

painiako beste zenbait hirirekin konparatuz gero, mugimendua ahulagoa izan zen. Epe laburreko ikuspegiak esaten zuen diferenteak zirela testuinguruak, funtzionatzen zuela EAJtik ezkerreko kokatzen ziren abertzaleen indar-metakak, sekulako giharrarekin sartu zela Bildu instituzioetan. Probintzia hauetako tertulia mediatikoetan *Trending Topic* bihurtu zen lau hankako mahaiaren kontzeptua: EAJk, EH Bilduk, PSE-EEk eta PPK osatutako taulak urte askorako garantia zeukan. Ezker Batuko lau boto-emaileak hiru aukera diferentetan sakabanatuta, nork pentsatu behar zuen bosgarren espazio politikoan momentu hartan?

Hortaz, bakegintzarekin eta burujabetzarekin loturiko gaiak izango ziren, aurreikuspen ia guztien arabera, hurrengo urteetako joko-zelaia marraztuko zutenak eta ez gai “sektorialak”. Alegia, ordura arteko tematika berdina, baina hilketa, atxiloketa, tortura, mehatxu eta beste hainbat gertakari beldurgarririk gabeko markoan. Oso testuinguru diferentea ezkerreko abertzaleentzat, zerumugan EAEn indar nagusi bihurtzeko benetako aukerekin –2012ko hauteskundeetan hortxe-hortxe ibili ziren–.

Baina itzul gaitezen Sol plazara. Urtebete geroago, 2012ko maiatzaren 12tik 15era bitartean antolatutako mobili-



OLMO CALVO

zazioetan, argiago dago M15a hartzen ari den bidea: gizarte-mugimendu ugari biltzen duen fenomeno izatera pasada, aldarrikapenak konkretuagoak dira; egoera sozialaren aurrean “zerbait” egin nahi duten askorentzat, lehenbiziko esperientzia politikoa edukitzeko plataforma bihurtu da, politika gizarte antolamenduan eragiteko ekintza gisa ulertuta, noski; ez alderdi politikoei egiten dutena bakarrik.

Hori baino gehiago da gainera, badago M15 bat plazetan baino, herritar askoren kontzientzia gertatzen ari dena. Eta hori Euskal Herrian ere sumatzen da, ordurako badaude seinale nahiko argiak: Gazteen Euskal Behatokiak egindako inkesta baten berri eman zuten egunkariei 2012ko maiatzaren 15ean bertan. EAEn, 15 urtetik 29ra bitartean dauden artean %50ek begi onez ikusten du momentu hartan M15 mugimendua, mobilizazioetan %14ak bakarrik parte hartu duen arren. “Irratietako eta telebistetako M15a da, inoiz asanblada batera edo plaza batera jaitsi ez zen jendearena, M15a-ekin enpatia sentitzen duen gehiengo sozialarena. Eta horren itzulpena ez zen izan errepresentazioaren kritika orokor bat, indarrean zegoen ordezkartzarena baizik”, azaldu du Eduardo Maura EAeko

Ahal Duguko idazkari politikoak *Rebellion* webgunean hil honen hasieran egin dioten elkarrizketan. “Beste M15 hori, imaginarioena, kantuen, esloganena, telebistarena, indartsu sartu zen Euskadin eta ezker abertzalea zaharren aldean utziz egin zuen”.

### Bi momentu politiko teilakatuta

Beste era batera ere esplika daiteke: garai politiko berri bat beharrez, bi ari ziren sortzen Hego Euskal Herrian 2011-2012 inguru horretan, bata bestearen gainean teilakatuta. Lehena Euskal Herriko fenomenoaren nagusiki, euskal gatazka hemen fokalizatuta baitzegoen, Espainian eragina zeukan arren. Bigarrena berriz, denborak gainean kokatu duena, Espainiako Estatu osoan gertatu zen eta hemengo alderdien agendan leku handirik izan ez zuen arren, gizarteak arretaz jarraitu zuen, egoera sozial zailari erantzun positiboa ematen ziolako.

Erritmo diferenteak izan dituzte bi garaiok: euskal gatazkaren amaiera lokatzetatik atera ezinda geratu da. Plazetan hasi zen mugimendua berriz, kapitulu kapitulu Espainiako eta Hego Euskal Herriko politika ulertzeko moduan eragin sakona izaten ari da.

M15a baino lehen, politikak problema narratibo handiak zeuzkan Espainian, bi aktore nagusik elkartrukatu zuten tronu-jokoa besterik ez zelako. Baina telesailak ez zeukan sekulako arrakastarik, are gutxiago estatua modernitatean sartu izanaren banderarekin paseatzen zen PSOE 2010eko maiatzaren 12an Nazioarteko Diru Funtzari eta Europar Batasunari men egin eta murrizketa plan gogor bat onartu zuenetik: 15.000 milioiko artazi-kolpea. Hasiera besterik ez zen: atzetik etorriko ziren 2010eko lan erreforma, aurrezki kutxetan kapital pribatuak sartzeko legedia aldatzea eta, batez ere, ia bost milioi langabetu. Katastrofe bat, estatuari berniz soziala ematen zion alderdiaren eskutik. PSOE maila horretaraino botere finantzarioen menpe ikusitak espainiar askoren txipa aldatu zuen: bere burua klase ertain gisa irudikatzen zutenek ulertu zuten ongizate estatua bukatua zela, oihanaren legea zetorrela eta bizi mailan atzera egiteko arriskua edozein kale bazterretan zain zeukatela –hipoteken ezpata buru gainean, sektore publikoaren kontrako neurriak...–.

Ohiko agente sozialen erantzunak ere izango zuen zerikusirik plazak okupatzearekin: Zapateroren Gobernuak hartutako neurrien kontra 2010ean UGTk



*Ezkerrak Euskal Herrian ordezkaritza-mekanismo sendoak edukitzeak egoera paradoxikoa eragin zuen: larrialdi sozialari erantzuteko sinesgarritasuna bazuten sindikatuek. Ez ordea botere ekonomikoaren aurkako borroka berrazmatzeko gaitasunik. Argazkian, 2013ko Greba Orokorra Donostian.*

LANDER ARBELAITZ

eta CCOOk deitu zuten greba orokorren lehen lerroan agertu eta hilabete eskasera, Valeriano Gomez sindikalistak Enplegu ministro kargua hartu zuen Espainiako Gobernuan. Erabaki obszono horrek erakusten zuen langileen esku-bideak defendatzeko sorturiko erakundeak gizartetik zein deskonektatuta zeuden; inolako eragilek ez zuen bere gain hartzen Espainiako herritar askoren ezinegona kanalizatzeko lana. “Ez gaituzte ordezkatzen” ez zen kasualitatez bihurtu M15aren lema nagusietako bat.

### Non ari dira gauzak gertatzen?

Aldiz, euskal gizartea “ordezkatzen gaituzte” esaten ari zitzaizen ezker independentistari eta euskal sindikatuei. Edo itxura hori ematen zuen behintzat ilegalizazio osteko hauteskundearen emaitzak ikusita. Hemengo sindikatuak ere eskubide sozialen murrizketari erantzuten askoz aktiboago aritu ziren: 2009tik 2013ra bitartean zortzi greba orokor izan ziren Euskal Herrian, horietatik bost ELAK eta LABek deituta, beste bat UGTk eta CCOOk ere babestua eta bi baino ez egoitza Espainian duten sindikatuen deialdiari jarraituz.

Mobilizazioak ez ziren nolana hikoak izan eta mota horretako ekintza sin-

dikalaren mugak agerian geratu ziren arren –ez zetorren ezer berririk egun bateko geldialdien ondoren, EAEko erakundeek beti argudiatu ahalko zuten egoera Espainiakoarekin konparatuz ez zela hain larria–, askoren imaginarioan oraindik Euskal Herria zen kolpe finantzarioaren aurkako borrokaren abangoardia. Narratiba horren arabera, “benetako politika”, pertsonen eguneroko bizitzan eragiten duen hori, nagusiki Euskal Herrian kokatutako fenomenoaren. Gatazka armatuak intentsitate berezia –eta dramatikoak– ematen zion hemengo alderdien lehiari, administrazioa kudeatzeko norgehiagoka arrunta baino askoz indartsuagoa zen, eta gizartearen esparru ia denak ukitzen zituen.

Euskal Herriko ezkerrek testuinguru horretan ordezkaritza-mekanismo sendoak zeuzkan, baina 2011ko maiatzeko momentuak paradoxa bat erakusten du: agenda soziala guztiz aldatu eta subjektu berriek –etxegabetua, prekarioa, lan bila emigratu behar duen gaztea...– protagonismo handiagoa hartu zuten hemen, ohiko eragileek hori egiteko adina indar eta sinesgarritasun bazeukatelako. Ez ordea botere ekonomikoaren aurkako gatazka termino diferentetan planteatze-

ko. Eta zerbait berriaren bila ari zirenek Dolby Surround kalitatean entzun zuten nobedadeak, orain, beste nonbaitetik zetozela. Hortik aurrera kontua jada ez da mugatuko Euskal Herria ala Espainia dikotomia politiko-sozialera, imaginario berri eta zaharren arteko talka kulturalak ere izango du zeresanik. Terreno horretan, puntu batetik aurrera, gauzak beste nonbait gertatzen ari dira eta ez hainbeste Euskal Herrian.

### EAJk ere ulertu duen zerbait

Bi alderdik irakurri dituzte egokien due-la bost urtetik nabaritzen diren gertakari horiek denak. Bat Podemos-Ahal Dugu da, noski. Zenbaitek Pablo Iglesiasen alderdia M15aren itzulpen elektoral gisa ulertu badu ere, operazioak konplexuagoa dirudi, besteak beste ez delako batere erraza alderdi politiko bat sortzea ordezkaritza instituzionala errotik kritikatzeko hasi zen mugimendu batetik –beste batzuk saiatu ziren, Partido X delakoa kasu, eta emaitza oso eskasak izan dituzte–. Iglesiasen 2014ko Europako hauteskundeetara aurkeztutako zela iragarri zuenean mugimendutik kritikak jaso zituen, baina geroztik lortutako emaitzekin moreek asmatu dute alderdikrazia gehien kritikatzeko



TOMALAPLAZA.NET

zutenetako batzuk ere euren zirkuluetara erakartzen.

Lortu dute, era berean, M15ean parte hartu ez zuten herritarren M15a izaten ere, iritzi publikoaren balorazio ona zeukan mugimenduaren unibertso sinbolikoa baliatuz. Eta batez ere, asmatu dute euren eskaintzarentzat marko aproposa sortzen: “politika zaharra vs. politika berria” edo “kasta vs. jendea”, M15aren interpretazioak dira klabe hegemonikoan. Hori bai, interpretazio horiek nekez aterako funtzionatuko zuten hautesle kopuru handi batentzat, lehenago gizar-te-mugimenduek sakoneko aldaketarik ekarri izan ez balute. Komeni da puntu hori azpimarratzea, ezker independentistatik Podemosi buruz egiten diren zenbait irakurketak alderdiaren ingeniaritza politikoa azpimarratzen baitute, hura posible egin duten fenomeno sozial ez kulturalez ahaztuta.

EAEn M15aren esanahia irakurtzen jakin duen beste alderdia EAJ izan da. Krisi egoera baten aurrean gizarteek erantzun diferentek eman ditzakete eta horien arabera, aldaketa-dinamikak bultzatu edo ez. Espainian klase ertainaren ameskeria amaitu dela onartzen lagundu zuen suminduen mugimenduak. Ongizatea “berreskuratu” beharreko zerbait izango zen aurrerantzean eta promesa hori sinesgarritasunez egiteko aukera ez zegoen alderdi gehienen esku. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan berriz, imaginario kolektiboan ez da hain ondo

txertatu ongizate-estadia zenbat kaltetu duten azken urteetako neurriek. EAEn lan erreformek, murrizketek eta prekarizazio giroak begi-bistako ondorioak dituzten arren, “hemen hobeto kudeatzen da” estiloko diskurtsoek gogor jo dute arrakasten zerrendetan eta EAJri ez zaio gaizki etorri Espainiako klima, argazki horren ondoan jarrita planta oneko ageri delako.

Nazionalismo tradizionalak bere burua berrasmatu du azken bost urteetan. Lehen euskal herritar “normalaren” alderdia baldin bazen, efektu hori biderkatu egin da krisi urteetan: beraiek dira enplegua sortzeaz hitz egiten dutenak, enpresez, familiaz. Ondo ulertu dute egoera sozial konplikatuek herritar askorengan sortzen duten babesgabatasun sententzia eta erantzun kontserbadore eraginkorra prestatu dute, marko konparatibo bat non, zenbaki guztiek dioten Espainian baino hobeto bizi gabela.

Inork ez du aldaketarik eskatuko gauzak hain gaizki ez doazela pentsatzen badu. Eta egoera beste lekuetan baino hobexego egotearen arduraduna EAJ dela uste badu, botoa emango dio berriz ere, asaldura handirik gabe. M15aren antitesia da, plazetako mugimendua bezain anonimoa eta jendetsua, baina esloganik, asanbladarik eta eraldaketarik gabea. Bizirautearekin konformatzen den pertsona arruntaren aukera. Grisa, euskal politika hartzen ari den kolorea bezala. ■

**garabide**  
**bidetara**

Jose Arana 13 · Eskoriatza (Gipuzkoa)

☎ 943 250 397

[www.garabide.eus](http://www.garabide.eus)

garabide



**txatxilipurdi**

**Nafarroa etorbidea, 23 / 1.**

**Arrasate (Gipuzkoa)**

[www.txatxilipurdi.com](http://www.txatxilipurdi.com)



**TALLERES**  
**MITXELENA**  
S.COOP.



**Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000**

**Fresadora: 10.000 x 3.500**

**Barrenatze mekanizatua**

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa

20120 HERNANI (Gipuzkoa)

T 943 55 25 12 · 16 · F 943 55 28 16

[info@talleresmitxelena.com](mailto:info@talleresmitxelena.com)

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)



Irudian, Tertangako aterpetxea (Araban). Besteak beste, jolas-gunea hurrekin batera planifikatu eta eraiki dute bertan.

URTXINTXA

## URTXINTXA

# AISIALDIA DESPROGRAMATZEN

Jakina da: jolasa eta aisialdia bitarteko ezin hobeak dira balioetan hezteko eta hazteko. Baina nola egiten da hori praktikan? Aurreiritziak alboratu, eskema zaharrak gainditu eta erronka berrietan murgildu dira azken urteotan begirale eta hezitzaileak. Etengabeko trebakuntza da gakoa, Bizkaiko Urtxintxa Eskola aisialdi taldeko hezitzaileek kontatu digutenez.



**Mikel Garcia Idiakez**  
@mikelgi

30 urte bete ditu Urtxintxak eta hiru markadatan gauzak asko aldatu al diren galdetu diegu solaskideei. Garai batean, aisialdiak hezkuntza formalaren esparrua erreproduzitzera jotzen zuela kontatu digute, hezitzaileen artean zaintzaile papera nagusitzen zela, eta urteekin helburutan eta balioetan lanketa handia egin dela. Azken boladan, esaterako, parte-hartzea da gehien eragin duen arloa: jarduteko modua irauli du, haur eta

gazteekin batera denon parte-hartzetik sortutako aisialdia da oinarria eta horri erantzuten jakiteko formatzen ari dira hezitzaileak. “Lehen, saioa programatu egiten genuen, landu nahi genituen balioen arabera hautatzen genituen jolasak; orain desprogramatu egin behar dugu, parte hartuko dugun guztiok elkarlanean antolatzen dugu saioa eta gure rola aldatu egin da”. Asanblada da abiapuntua, adinaren eta taldearen arabera oso ezberdina izan daitekeena, eta egunetik egunera hezitzaileak eurak ere ikasten ari direla azaldu digute Eñaut Aiertzagüena Bravo, Iraide Baskaran Uranga, Ainhoa Muerza Molina eta Julene Onaindia Garciak.

### Feminismoa, aniztasuna, euskara... lantzeko teknikak

Feminismoa edo hezkidetza, kultur artekotasuna, euskara eta aniztasun funtzionala dira Urtxintxan lantzen dituzten balio nagusiak. Gai horietan etengabe trebatzea eta esku-hartzerakoan ikasitakoa aplikatzea da gakoa, probatzen joatea, baita hezitzaileen artean aliantzak bilatzea ere, taldean aritzea garrantzitsua dela baitiote. “Balioak lantzeko jolasak moldatu egiten ditugu –dio Ainhoa Muerzak–, jolas bera izan daitekeelako oso sexista edo ez sexista, planteatzen dugun moduaren arabera. Hori aintzat hartzea eta jolasari buelta bat ematea

» **AINHOA MUERZA:**

“Jolas bera izan daiteke oso sexista edo ez sexista, planteatzen dugun moduaren arabera. Hori aintzat hartzea eta jolasari buelta bat ematea da gakoa”

» **EÑAUT AIARTZAGUENA:**

“Bainujantzia umeekin batera aldatzea eta biluztea erabaki nuen. Lehenengo unean harritu egin ziren, ondoren naturaltasun osoz hartu zuten eta kito”

» **JULENE ONAINDIA:**

“Hasieran hezitzaileok deitzen genituen asanbladak, eta pixkanaka haurrak hasi ziren ardura hori hartzen. Ume batek jarrera homofoboak jasan zituen eta asanblada deitu zuen bere sentimenduak plazaratzeko”

» **IRAIDE BASKARAN:**

“Hurrei gauza bat eskatu eta guk beste bat egitea kontraesankorra da, eredu izan behar dugu”



Ezker-eskuin: Iraide Baskaran, Ainhoa Muerza, Julene Onaindia eta Eñaut Aiertzaguenena.

M.G.I.

da funtsa”. Alegia, zirrikituak bilatzea, jolasen bidez balio ezberdinak lantzeko. Adibidez, Banderen jolasean talde bakoitzak bere bandera defendatu eta besteena lapurtu behar du, elkarren kontra lehiatuz; bada, egun batean erabaki zuten taldekide guztiak batuta aritzea, pixkanaka gainerako taldeekin aliantzak eginez, eta une batean denak bihurtu ziren aliatu, denek irabazi zuten jolasa.

Euskara da, Eñaut Aiertzaguenaren hitzetan, gairik zailenetakoa: “Lehen, agindua ateratzen zitzaigun, ‘egin euskaraz’, eta sarri kontrako efektua eragiten genuen; esperientziatik ikusi dugu eraginkorragoa dela esaterako umeak edo gazteak gaztelaniaz ari diren solasaldian sartu eta euskaraz eustea, eurak pixkanaka ‘kutsatzeko”.

Hezkidetzari lotuta, estereotipoak apurtzeko eta emozioak lantzeko dinamika burutu zuten udalekuetan: 10-13 urteko gazteak lurrian eseri ziren, begiak itxita eta musika lasaiak girotuta, eta hezitzaileek belarrira goxo-goxo gauza politak esan zizkieten, laztanen bat egin zieten... inor deseroso sentiarazi gabe. “Mutilak uzkurrago egon ziren hasieran, baina hara gure sorpresa, hurrengo egunean gaztetxoek eurek proposatu ziguten guri berdina egitea”.

Biluztasuna gai arantzatsua dela gehitu du Aiertzaguenak: “Udalekuetan, hondartzan bainujantzia aldatzeko unea esaterako aukera proposa da halakoak lantzeko, baina kontrako mezua ematen dugu, umei bertan aldatzeko eskatu eta hezitzaileak aldagelara txan-

daka joaten bagara. Duxetan ere konplexuak azaleratzen dira adin jakinetan eta egoera hori kudeatu behar da. Ur-jolas batzuen ondoren erabaki nuen kanpoan umeekin batera aldatzea eta lehenengo momentuan harritu egin ziren, ondoren naturaltasun osoz hartu zuten eta kito”. Azken finean, eurei gauza bat eskatu eta norberak beste bat egitea kontraesankorra dela gaineratu du Iraide Baskaranek, hezitzaileek eredu izan behar dutelako: “Egia da udalekuetara iritsi eta bat-batean denak batera duxatuko direla edo toallarik gabe aldatuko direla pentsatzea egoera bortxatzea izan daitekeela, horregatik da aurretik, txikitatik eta ikuspegi ugariatik landu beharreko zerbait”.

Eredu eta aldi berean bat gehiago izatea, horra ondo orekatu beharreko balantza. Hezitzaileek argi dute taldean bat gehiago direla, baina ahaztu gabe balio batzuetan eta helburu batzuen arabera hezi nahi dituztela haurrak, eta horretarako eredu gisa ere ikusi behar dituztela. Adibidea jarri digute: palan mutilak baino ez badira ari, emakumezko hezitzailea haiekin jokatzeko hastea da eredu izatea, ea neska gehiago animatzen diren.

### Kezka eta sentimenduei hitzak jartzeko

Berriketa eta eztabaida uneak ere aukera ederra dira, gai ugari lantzeko. Gaztelekuan, solasaldi eta gogoetak ia egunero izaten dituztela kontatu digu Muerzak. Adinaren, bizipenen eta kez-

## URTEURREN KOLORETSUA

Batez ere Bizkaian eta Araban aritzen da Urtxintxa, hezitzaile eta trebakuntza tailerrak eskaintzen, ikastetxeetako jolas-tokiak, gaztelekuak edota ludotekak dinamizatzeko, familia edo eskolentzako saioak antolatzen, aholkularitza lanetan... Urtxintxa Eskolan egunerokoan 10 langile aritzen dira, baina Urtxintxa hiru zutaberen gainean sostengatzen da (Urtxintxa Eskola, Eragintza eta Emaisia emakume taldea) eta antolatutako ekimenetan parte hartzen duten hezitzaile, langile eta boluntario kopurua askoz handiagoa eta zehazgabeagoa da. Baliabide eta produktuak ere sortzen dituzte (jolasak, ipuinak, puzzleak, koadernoak...). Azkena, Euskal

Herriko Damak jolas interaktiboa: mugikorretarako doako aplikazioa da eta dama jokoaren bidez Euskal Herriko emakume esanguratsu batzuk eta haien lorpen eta bizipenak ezagutaraztea du helburu.

30. urteurrenaren harira, bazkietza kanpainan jarri dute indarra –egun, 40 urtxintxakide dituzte– eta bazkietzarako eredu anitzak ere badituzte buruan, ekarpen ekonomikoaz gain bestelako ekarpenak kontuan hartuko dituzten bazkietzak. Maiatzaren 13tik 15era jaia antolatu dute Tertangan, *Urtxintxaz blai mundua koloretan* lelopean. “Urtxintxarekin batera denon artean zuri-beltzeko mundu hau balioen kolorez margotzen jarrai dezagun”.

ken arabera, eurek planteatzen dituzte gaiak. “Duela gutxi transexualitateari buruz galdezka hasi ziren, eta horretaz hitz egiteko aprobeztatu genuen”. Edozein aitzakia ona da, gaineratu du Aiertzaguenak: “Txango batean galdeztzen badidate ea neska-laguna dudan, erantzungo diet mutil-laguna dudala, modu ahalik eta naturalenean halako gaiak mahai gainean jartzeko”. Asanbladak ere interesatzen eta arduratzen dituenaz mintzatzeko abagunea direla gogoratu du Julene Onaindiak: “Gure esperientzia da apurka-apurka irekitzen joaten direla haur eta gazteak. Auzolandegietan gertatu zitzaigun hasieran hezitzaileok deitzen genituela asanbladak, eta pixkanaka eurak hasi zirela ardura hori hartzen. Txango batean haur bat txarto sentitu zen hainbatek harenganako jarrera homofobia izan zutelako, eta ezohiko asanblada deitu zuen bere sentimenduak plazaratzeko. Konfiantza giroa sortzea funtsezkoa da, halakoak egin ahal izateko”. Bere burua horretarako bezain ahaldundua ikusten ez duenari ere, bestelako erreminta eta esparruak eskaintzen dizkiote, lagun edo hezitzaile jakin batekin hitz egitea kasu.

### Etiketetatik harago, gaitasunak ikusten jakin behar

Batzuetan nekagarria, batzuetan gogorra da hezitzailearen lana. Gurasoekin egon nahi baina gurasoak oportetara joan eta udalekuetara bidali duten seme-alaba negar eta negar gogoratzen du batek, senideengandik tratatu txarrak

jasaten zituena du buruan besteak, gain hartu zieten nerabeak... Baina batez ere, asetzen dituen lana da, aberasgarria, konfidentzia sakonak eta haur eta gazteen hazkuntzan une gazi-gozoak partekatzeak aukera eskaintzen diena. Baita besteengandik ikasteko parada ere. “Umeetako bat arroketa igo zen, erre-kara salto egiteko –kontatu digu Onaindiak–, eta aniztasun funtzionala duen beste batek jarraitu zion atzetik, down sindromeduna. Jaitsiaraztea izan zen nire lehenengo erreakzioa, baina ondoko hezitzaileak esan zidan, zergatik aurrekoari ez diogu ezer esan eta esan-go diogu honi? Ume indartsua eta autonomoa da, kapaza da. Eta bai, kapaza zen, oso salto polita egin zuen. Teoriatik praktikara jauzi egitea ez da erraza, mugak ditugu, erantzukizunak... Pertsonen atzean etiketak ikusten ditugu, eta etiketatik harago, gaitasunak ikusten jakin behar dugu”. Hezitzaile idealik ez dagoela azpimarratu du, bakoitzak adjektibo eta ezaugarri ugari dituela, “eta osotasunean horrek ematen dio indarra taldeari, elkarren osagarri gara”.

Hezkuntza ez formala ez dago behar bezala baloratuta, diote, guraso batzuek umeen aparkaleku gisa erabiltzen dute oraindik. “Denetarik izan dugu –dio Aiertzaguenak–; proiektu batzuetan oso inplikaturik ikusi ditugu guraso, ikastetxe eta komunitateko eragile asko, eta beste batzuetan aldiz, batere interesik gabe. Pentsatu nahi dugu gure ekarpena, portzentaje txikian bada ere, ailegatzeko delat familiara eta komunitatera”. ■

Unibertsitate Master Ofiziala

## GIZARTE EKONOMIA ETA EKONOMIA SOLIDARIOA

Izena ON LINE bidez emango da UPV/EHU web orrialdean

[www.ehu.es/eu/web/economiasocialsolidaria](http://www.ehu.es/eu/web/economiasocialsolidaria)

Informazio gehiago  
gezki@ehu.es

Tel. +34 943 01 74 98

Antolatzailea:



GEZKI





# ERREPIDEAN ELKARTASUNARI MIRENTXIN ESATEN ZAIO

Ostiral arratsaldea da, eta Kordobako espetxerako bidea errepasatzen dihardute Amaia Urkitzak eta Maider Huertak. Mirentxin Gidariak boluntario sareko bi kide durangarrek 20:00etan finkatu dute hitzordua *herriko tabernan*, kafesne bana hartu eta bideari ekiteko. Urtean birritan errepikatzen dute eszena.



TESTUA ETA ARGAZKIAK

**Iker Oñate Aiausti**

@iker\_onate

AP-8, AP-68 edo M-40 ez dira formula matematikoak, Mirentxineko kideek asetero ebatzi beharreko problemak baizik. “Lehenengo AP-8a hartu behar dugu, ostera AP-68a...”. Bederatzi furgoneta eta hamahiru taldetan banaturiko 850 gidari inguruk osatzen dute Mirentxin. Taldearen elkartasun sarea, baina, ez da hor amaitzen. Ezin daitezke ahan-tzi furgoneten mantenuaz eta bidaien

koordinazioaz arduratzen direnak. Sare handia, presoaren senide eta lagunaren zerbitzura; bidaia luzeak “laburtzea” beren xedea. 1999ko urrian sortu zenetik, boluntario sarea zabaltzen dihardu Mirentxinek. Elkartasuna ardatz.

Abadiñoako Matiena auzoan hitzartu dute lehen parada, Isidro Gabirondo dute zain, Ibon Muñoa euskal presoaren laguna. 20:25 adierazten du ordulariak,

eta Matienako San Blas ostatura abiatu da furgoneta gorria. Gaua ate joka. “Ai, argia! Nire autoan bere kabuz pizten da eta!”, dio Maider Huertak. Berak egingo ditu ibilbideko lehen kilometroak.

Furgoneta Matienara heldu berri, esku balazta eragin du gidariak. Gabirondo tabernako mahai batean dago eserita, bideari ekiteko prest. Bidaiari bat gehiago Bilborako bidean: Kordoba-



ko ziegetan dauden lau euskal presoren senide eta lagunak dituzte zain Atxurin. Berandu doaz. Kezkaturik. "Familiak urduri jartzen hasiak izango dira", esan du Urkitza boluntarioak.

Bilbon barrena doa furgoneta; aurreikuspenek kale egin, eta Atxurira heltzean lehen arazoa: ez dago denentzat lekurik. Urduritasuna areagotu da gidarien artean. "Arazoren bat gertatzen bada, urduri jartzen zara. Presoen senide eta lagunak garaiz eraman nahi dituzu espetxera, bisita gal ez dezaten", adierazi du Huertak. Baina arazoa ez da horren larria. Jon Kepa Preciado presoaren lagunak badute irtenbiderik; Iraia Urraca eta Asier Gomez autoan joango dira Lopidako (Araba) zerbitzугunera. Durangarrak bertan elkartu dira Kordobara doan bigarren furgonetarekin. Lau gidari eta bi furgoneta, 818 kilometro egiteko prest.

Mirentxineko furgoneta orok egin beharreko geralekua da Lopida eta hori nabari da zerbitzугuneko tabernan. Bidean jaso ezin badituzte, boluntarioak bertan elkartzen dira presoen senide eta lagunekin. Espetxetara doazenean albo batean dituzte pilaturik kartzelarako poltsa koadrodunak, motxilak... Kanpoan, berriz, lau furgoneta. "Gaur gidari lanak egitea dagokigu", dio Murtziara doan gidari oñatiarrak. Elkartasun izpiak Lopidako gau ilunean. Kordobara doan bigarren furgoneta ere bertan da; Maritxu Arostegi eta Joseba Agirrezabala dira gidariak, eta Igor Porturi bisitan doan Ilargi Iraizoz izan dute bidelagun Egia (Donostia) eta Lopida bitartean.

Ordu erdiz Lopidan afaltzeko tartea izan ostean, 22:30 ordularian eta bidaiarekin jarraitzeko uea. Zortzi pertsona doaz Kordobara bisitan, bi furgonetetan. Zortzi ordu dituzte aurretik; eroso jartzea beharrezkoa da. Furgonetaren atzealdean doazen hirurek horizontalean jarri dute eserlekua. Dena prest dute lokartzeko. Hastera doa terapia. "Mirentxinekin bidaiatzea terapia ere bada; denok gaude egoera berean eta gaitzari aurre egiten laguntzen du", dio Xabin Usandizaga presoaren arreba Izaskunek.

Burgoserako noranzkoan doaz bi furgonetak. Ilargia lagun eta kamio amaiezinak aurretik. Hutsik dago errepidea, kamioiak eta garraiolarien furgonetak besterik ez; noizean behin, automobilen bat edo beste. Iparraldeko autobidean

barrena, *Tijuana in Blue* taldearen abestia, "¿Qué haces tú? ¿Qué haces tú? ¿Que no bailas con Tijuana in Blue?". Musika bizia, dantzagarria, loaren tentazioari aurre egiteko.

Bidaiariak lokartu dira. Gidarien noizean behineko hizketaldiek eta musikak besterik ez dute furgonetako isiltasuna apurtzen; tarteka, zurrunga ahulen bat.

Maidar Huertak eta Amaia Urkitzak 2014an erabaki zuten Mirentxineko kide izatea. "Jende beharra zegoela esan zidaten; Amaiari bikote gisa sartzeara proposatu nion eta baietz esan zidan", dio Huertak. Orduetik, urtean birritan bisitatzen dituzte espetxeak. Hiru espetxe ezagutu dituzte orain arte. Presoen egoera aldatuz doa urtez urte eta horrekin batera, senide eta lagunaren beharrrak; presoak lekualda ditzakete, esaterako. Momentuan momentuko egoerara moldatu behar izaten du Mirentxineko. Gaur-gaurkoz, 370 presotik gora daude Espainiako eta Frantziako estatuetakako 71 espetxetan sakabanatuta (2016ko apirilaren 27ko datua).

Lopidatik irten direnetik hiru ordu eta erdi igaro direnean, Madrilgo errepidean barrena doaz furgonetak. Joaneko bide erdia dute egina; oraingoan, aparteko arazorik ez. Joseba Agirrezabalak badaki zer den arazo mekanikoek eraginda bide ertzean gelditu behar izatea. "Duela zenbait urte, Alacantera gindoa zela, furgoneta matxuratu zen. Ez genekien non geunden. Aseguru etxera deitu eta taxi bat bidali ziguten. Espetxera joatea erabaki genuen, nola itzuli jakin

» **Bederatzi furgoneta eta hamahiru taldetan banaturiko 850 gidari inguruk osatzen dute Mirentxin**

» **Errespetu handia diote errepideari, 1982tik hamasei baitira bidean bizitza galdu duten senide eta lagunak**

gabe. Espetxera heltzea da garrantzitsuena, senide eta lagunak preso bisita dezaten", dio.

Kilometro asko, espetxe ugari eta bidaiaren anitz; bederatzi furgonetaren astero-ko errutina. Horrek, noski, astez asteko mantenua izatera behartzen ditu eta tarteka, zenbait pieza konpondu behar izaten zaizkie. Finean, gastuak. Senide eta lagunak dira, Mirentxineko boluntarioekin batera, gastu horiei aurre egiten dietenak. Urtean zehar dirua biltzeko zenbait ekimen abiatzen dituzte.

4:20 ordularian. 223 kilometro Kordobara iristeko. Arazorik izan ezean, presoen senide eta lagunak garaiz iritsiko dira bisitara. Izaskun Usandizagak eta Jose Martínezek 8:00etan egon behar dute bertan, vis a visa eskaini baitiote Xabin Usandizaga presoari; urte bat daroate elkar ikusi gabe. Ilargi Iraizozek ere vis a visa du Igor Porturekin. Gainerakoek 9:00etan egon behar dute espetxean, egin beharreko kontrolak egin, eta 10:00etan presoari bisita egiteko.

Furgonetak garaiz doaz. 6:30 ordularian eta Pedro Abad herrira irisi berri dira; bertan egingo dute lo Mirentxineko gidariak, Macami ostatuan. Lotarako beharrezko dutena hartu eta badoaz ostatu barnera. Nekea nabari da beren begietan.

### **Bisita aurretik, urduritasuna**

Espetxetik 20 kilometrora dago Pedro Abad. Lander Fernandezek, Jon Kepa Preciadorren lagunak, eramango du furgoneta espetxera. Fernandez ere preso egon zen; Estremeran (Madrid VII) ezagutu zuen Preciado 2013an. "Barruan egon garenon bisita ere eskertzen du presoak, badakigulako zer den hor egoeta", dio. Lehen ez bezala, egun preso ohiei ere bisitak onartzen dizkiete.

Halako batean, "Salida al centro penitenciario" dioen seinalea bide ertzean. "Begira, hortxe dago espetxea", dio Fernandezek. Errepidetik ikus daiteke presondegia. Gau ilunean, fokuz beteriko eraikinak. Aurpegia aldatu zaio Fernandezi, sentimendu nahasiak bere barrunean.

7:00ak jotzeko, Kordobako espetxetik kilometro eskasera dagoen zerbitzугunean gosaltzea erabaki dute senide eta lagunak. Zukua, kafea eta tostada artean, kirolaz, politikaz edo aspaldiko anekdotetz ari dira. Edozerk balio du bisitak sortzen duen tentsioari aurre egiteko. Hala



ere, zaila une batez bisitaz ahaztea; eta ezinezkoa, beharbada, zerbitzугuneko aparkalekutik espetxea ikus daitekeela kontuan izanda. Motorzale bat lurtean lo, Guardia Zibilak goizeko kafea edaten, tabernako langileak iristen...

Urte luzez Malagako espetxera anaiari bisitan egin behar izan dituen bidaiak ekarri ditu gogora Isidro Gabirondok. “Irunetik Malagara zihoan autobus pirata zegoen, tabernetan eta dendetan eros zitekeen txartela; horrela joaten nintzen Malagara 1989 eta 1992 bitartean”, azaldu du. Orduan, baina, bisitak 20 minutukoak ziren, presoek ez baitzuten bisitak pilatzerik. “Behin edo behin hamar minutuko bisitarako ere joan izan naiz Malagara, anaiari zigorra jartzen ziotenean”, gaineratu du. Juan Maria Gabirondo preso ohiaren anaia da Isidro Gabirondo.

Mirentxinek senide eta lagunei egiten dien ekarpena ere presente dago hizketaldian. Esker on hitzak besterik ez. “Guk asko zor diogu Mirentxini. Izugarria da etxetik irten, furgonetan sartu eta bidaiak eragiten duen kezka saihestea”, adierazi du Gabirondok. “Bisitaz gozatzeko aukera eskaintzen du Mirentxinek; bisitara nekatuta heltzen zara bestela”, gaineratu du Fernandezek.

Presoen senide eta lagunek 9:00etan egon behar dute presondegian. Baina urduritasuna gailendu, eta espetxerantz abiatzea erabaki dute. 8:25 ordularian. Hastear da preso bisitatzeko igaro beharreko kontrol sorta. Presondegiko aparkalekuan daude bi furgonetak. Presoei megafono bidez helaraziriko oharrak, senide eta lagunak hesiaren bestaldera –barrura– begira... Finean, espetxe atariko giroa.

» **IZASKUN USANDIZAGA, PRESOAREN SENIDEA:**  
“Mirentxinekin bidaiatzea terapia ere bada, gaitzari aurre egiten laguntzen du”

» **MAIDER HUERTA, BOLUNTARIOA:**  
“Presoen senide eta lagunak garaiz eraman nahi dituzu espetxera, bisita gal ez dezaten”

### Kristalaren bi aldeak

9:00etan igaro behar dute lehen kontrola: izena ematearekin batera, hatz marka. Gero, ordubete itxaron behar dute bisita gelarantz abiatu aurretik. Buruari bueltak emateko denbora aski da ordubete. *Zer esango diot? Nola agurtuko dut? ...* “Behin barrura sartuta, pentsatuta zenuen guztia ahazten zaizu”, esan du Ander Robadorrek, Oskar Kalabozoren lagunak.

Bitartean, barruan daude Izaskun Usandizaga, Jose Martínez eta Ilargi Iraizoz, Xabin Usandizagarekin eta Igor Porturekin *vis a visean*. 9:00etan hasi dute bisita; presoarekin ordu eta erdiz egoteko aukera izango dute. Izaskun

Usandizagak eta Jose Martínezek argazkiak eraman dituzte, baina kontrolean ez diete guztiak sartzen utzi. “Gutun bidez bidaliko dizkiot gainerakoak”, esan du Usandizagak.

Kartzelako langile batek barrura sartzeko dei egin die presoen senide eta lagunei. 9:50 ordularian. Bisita gelara bidean kontrol gehiago dituzte igarotzeke: metalen detektagailua eta hatz marka.

Azkenean, iritsi dira bisita gelara. Hastera doa. Patioko atea ireki dute, eta barrura sartzen hasi dira presoak; irrintzi egin du horietako batek. 40 minutuak hasi dira. Gauza asko kontatzeko. Atzera kontua.

### Mirentxinen sustraiak

Mirentxin Gidariak izenaren jatorria ez da horren ezaguna. Mirentxin Aurrekoetxeak preso zuen senarra, Algecirasko espetxean; ez zuen bisitan joateko modurik. Egoeraz jabeturik, Aurrekoetxea eta haren bi alabak Algecirasko espetxera eramateko prest azaldu zen izenik eman nahi ez duen boluntarioa; oraindik ere Mirentxineko gidaria da. “Beren laguntza jaso izan ez bagenu, bisita gutxi jasoko zukeen nire aitak”, dio Mirentxin Aurrekoetxearen alaba Araide Legarreta-Etxebarriak. Denborarekin, lagun sare bat sortu, eta Euskal Herrira jauzi egitea erabaki zuten. Mirentxin Gidariak bataiatu zuten proiektua. “Duela urte batzuk nire familia laguntzeko sorturiko ekimenak senide eta lagun askoren egoera arintzeko baliu duela ikusteak hunkitu egiten nau”, azaldu du.

Baina bisita orok du amaiera. 47 minutu izan dituzte presoarekin hitz egi-



teko, eta jada irten beharra dute. Hori bai, bueltako bidea hartu arretik, *vis a vis*ean daudenak itxaron behar dituzte; 11:30etan irtengo dira. Bisitatik irtenda, ba, espetxeko atarian daude, 47 minutu horietan bizi izandakoaz hitz egiten: nola doakien, zertan diharduten ... Taxi gidari bat gerturatu zaie halako batean. Enrique Heredia, Kordobako espetxera bisitan doan euskal herritar orok deitzen duen taxi gidaria. Presoen senide eta lagun ugari ezagutzen du eta konfiantza aski du beraiekin. Gabirondori, esaterako, Eibar futbol taldearen inguruan hasi zaio hizketan. “Azkenean ez zinen Eibar eta Kordobaren arteko norgehiagoka ikustera etorri!”, erantzun dio Gabirondok. Irteten hasi dira *vis a vis*ekoak.

12:00ak iristear, Mirentxineko gidariak batzeko ordua. Ostatu kanpoan daude, mahai batean eserita, gosaltzen. Presoen senide eta lagunak beraiekin eseri dira, bidaia hasi aurretiko azken otordua egiteko. Bermuta, kaña edo kafea, txigorki eta txokoen laguntza-

*Zerbitzугunetako deskantsuak, bisita aurreko urduritasuna eta kontrolak dira presoen senide eta lagun bidaieko errutina.*

rekin. Hizketaldiak, irriak eta tarteka, elkarren arteko isekak. Betidanik elkar ezagutzen duen lagun taldea dirudi. Gustura daude, baina bueltako biderei ekin beharra diote, berandutu egingo zaie bestela. Oraindik ordu asko dute egiteko.

### Ettxera buelta

Bi furgoneta Espainiako errepedeetan barrena, etxera lehenbailehen iritsi nahian. Ordulariari begiradak. Madrilen sekulako ongi etorria: euria barra-barra eta trafikoa izugarria. M-30 errepedea hartzea erabaki dute gidariek, bidea laburragoa delakoan. “Laburragoa bai, baina arriskutsuagoa”, esan die Gabirondok. Errespetu handia diote errepedeari, 1982tik hamasei baitira bidean bititza galdu duten senide eta lagunak. Istripua ezin daiteke aurreikusi.

Nekea nabari da senide eta lagun bidean. Ordu asko errepedean. Ordu-lariak 22:00 adierazten duenean, Bilbon da furgoneta gorria. Abandoko metro geltokiaren alboan utzi ditu bidaiariak. Bakoitza bere aldetik joateko ordua; hurrengo bidaian ikusiko dute elkar. Dena den, urtean zehar badituzte hitzorduak elkarrekin egoteko. “Mila esker neskak. Izugarria da egiten duzuen, inoiz ezin izango dizuegu ordaindu”, eskertu die Usandizagak adio esan aurretik.

Amaitzen ari da gidarien elkartasun asteburua. Durangora bidean doaz, senide eta lagun bidean esker on hitzekin hunkituta. Badakite sei presoren bisita ahalbidetu dutela, beraiekin izan ez balitz, beharbada Kordobara bidaiatu duten zortzi senide eta lagun ezingo luketela bisitan joan.

Nekaturik, baina indarberrituta daude gidariak, ematen dutena baino gehiago jasotzen dutenaren sentsazioaz. Eman eta jaso. Larunbata da, 23:30 ordularian; eta Durangon da furgoneta. Amaitu dute 27 orduko bidaia. ■

# JAL-GI

EUSKAL KULTURAREN PLAZA IBILTARIA

jalgika.eus

BATUKADA  
**PORROTX**  
BURUHANDIAK  
ERRALDOIAK

**YOLANDA ARRIETA**  
MAITE FRANKO  
PATXI ZUBIZARRETA  
**MIKEL AYLLON**  
+ IGOR ARZUAGA  
MARA FEAT MILAY  
MATEO METEO

**OIER ARAOLAZA**  
AIKO DANTZA PLAZA  
PANTXIKA TELLERIA  
**ELIRALE**

MIKEL URAKEN  
**JOSEBA TAPIA**  
+ IÑAKI PLAZA  
HIP HOPA  
**JUAN MARI BELTRAN**  
FITA FIK  
**HALA DZIPO**  
**ERASO!**  
GALDER IZAGIRRE  
**XABI SOLANO**  
XILIPURDI HAUR BERBENA  
**RUPER ORDORIKA**  
+ IGOR ARZUAGA  
**HESIAN AKUSTIKOA**  
IGON OLAGUENAGA  
ODEI BARROSO + IÑAKI VIÑASPRE  
ULUKA  
**GORKA URBIZU**  
AGUXTIN ALKHAT  
**ANARI**

**HIKA TEATROA:**  
KOADERNO ZURIA  
**ANODINO TEATROA**  
ZERURA ERORIA  
**PABLO IBARLUZEA**  
ESPERIENTZIAK  
MEDIAZIOAK  
INPROTXOW  
BAPATEAN ZIRKO  
KALE ORROKA  
METROKOADROKA

**PIKADERO**  
FILM LABURRAK  
**KATIXA AGIRRE**  
ESTI URRESOLA  
**IRATXE FRESNEDA:**  
NIRE 12 SEKUENTZIA KUTTUNAK  
**ASIER ALTUNA:**  
ATZERA BEGIRAKOA  
LABURBIRA

**MIREN AMURIZA**  
KAPULANA BAT ZINTZILIK  
**XALBADOR**  
“IZANA ETA IZENA”  
**ANDONI EGAÑA + ASIER RUBIO**  
BERTSOLARITZA IKASTETXETAN  
**GARAI HURA GARA**  
(ANDONI EGAÑA ETA XABIER LIZASO)  
IÑAKI VIÑASPRE, ODEI  
BARROSO, SERAPIO LOPEZ,  
IZAR MENDIGUREN, OHIANE  
PEREA, JON MAIA  
**BERTSOLHARITZA**  
IBAI ESOAIN

AIARALDEAN

MAIA-TZAK

23-29

EUSKAL KULTUR SORKUNTZAREN KOMUNIKAZIOARI ETA TRANSMISIOARI BURUZKO JARDUNALDIAK

AMURRIO  
MAIATZAK 26 ETA 27

LAGUNTZAILEA: ARGIA



# OgiBidea



**Irati Sarasua Arabaolaza**

@iratisarasua

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Ura, irina eta gatza. Horixe da ogi artisauro ekologikoaren osagai zerrenda, okinen eskuek eginiko lanaz eta emandako goxotasunaz gain, sekretu bakarra. Hiru lehengai horiekin egiten dituzte astero 300 ogitik gora Xabier Odriozola eta Eneka Lazkanok, eta Leire Albisu eta Asier Bastarrikak. Bi bikoteak Biolur elkarteko okin taldeko kide dira, eta euren egunerokotasunak antz pittin bat badu.

Errezilgo Solaka baserrian Odriozolak eta Lazkanok bost urte daramatzate ogia egiten, eta Aiako Goiabe baserrian bizi diren Albisu eta Bastarrikak zazpi. Guztiek izan zuten inflexio puntu bat bizitzan; etxetik kanpo egiten zuten lan, eta egun batean naturatik gertuago sentitzeko, ogibidea aldatzea erabaki zuten. "Orain guk markatzen dugu zer nahi dugun, noraino heldu nahi dugun",

dio Lazkanok. Gustura daude bi bikoteak: "Ez dakit ekonomikoki errentagarria den ala ez, eta lan handia du, baina bada polita ogia egitea", esan du Albisuk. Euren helburua bikotearentzat bizimodu ateratzeko modua egitea zela dio Lazkanok, "askoz gehiago espero gabe, aberasteko asmorik gabe", eta helburua momentuz behintzat lortzen ari dira.

Lanbide bilakatu zutenetik, astean bitan egiten dute ogia, eta gainontzeko egunetan ere hari loturiko bestelako lanak egiten dituzte. Errezilgo familiak, esaterako, ia prozesu osoa egiten du: garia erosi, errotan eho, galbahetik pasa, ogia egin, saldu, banatu, kontabilitatea egin... Beraz, ederki ezagutzen dute prozesu osoa. Aiako familiak irina erosi egiten du, baina gainontzean antzeko prozesua egiten du.

Mahaiaren bueltako harreman gehienetan presente egon izan da ogia, eta horren adierazle da gaztelaniazko *compañero* hitzaren jatorria: ogia partekatzen dator. Prozesu osoa egiten duten bi baserrian izan gara eta eurek azaldu digute nola egiten duten, eta ogi industrialekiko dagoen aldea.

## Orea ogi bihurtu arte

Ogia egiten hasi aurreko egunean hasten da prozesua; aurreko ogi-alditik gordetako orantza, ore ama, handitzea da lehenengo lana. Horrek astebeteko prozesua behar du berez, ura eta irina landu behar baitira. Dena dela, okin gehienek aurreko labekadako ore zati bat gordetzen dute hurrengoan oinarri gisa erabiltzeko: "Lau aldiz biderkatzen dugu legamia, pentsa, batetik ehundik gora ogi ateratzen ditugu", dio Bastarrikak.

Ore hori ura eta irinarekin nahastu eta leku epelean uzten dute, sei ordu inguruz, bitarte horretan legamiatu dadin. Sei ordura berriro egiten dute, eta gauean hirugarren aldiz. "Azken horrekin ogia izango denaren oreka egiten dut, eta aurrekoetan ez bezala, gatza



eta olioia gehitzen dizkiot. Ondoren, oratzailean bueltak ematen dizkiogu, glutena garatzeko”, Albisuk buruan urratsak ondo irudikatuta ditu. Horren ostean, pisatu, bolak egin, moztu, eta atsedean hartzen uzten dute. Gero, 3-4 ordu pasatu ostean, sartzen dute labean. Egun berean labekada bat baino gehiago egiten dutenez, eta urrats asko direnez, prozesuak tartekatzen dituzte egunean zehar. Oratzailean bueltaka egongo da zati bat, eta bitartean, beste zati batekin bolak egiten ariko dira: “Zortzi labekada direnez, bakoitzaren prozesua bestearekin tartekatzen dugu”.

#### **Artisau ogia vs industrialia**

Normalean ogi artisauaren eta industrialaren arteko bereizketa egiten da. Baina bada bereizketa horrekin bat





**ZEGAMAOKINDEGIA**  
Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua 14G eta 14H nabeak,  
20215 Zegama (Gipuzkoa).  
tel.: 943-801066 • zegama@zegamaokindegia.com

Ancient wheat  
**ECOCANDEAL**



• Trigo antiguo DESDE 2011 •

Bereizko ekoizpen  
organikoa eta ekologikoa

www.ecocanddeal.es



haritzpe

Etxalarko  
okindegia

tel.: 618 778 328



**OGI ARTISAU EKOLOGIKOA**



Sukalde zerbitzua  
Bertakoa eta Ekologikoa

Azokak, Bazkariak, Zizka-Mizkak  
goiabe25@gmail.com • 943 580 832



Asier Bastarrika eta Leire Albisu Aiako Goiabe baserrian.

egiten ez duenik ere; Bastarrika, esaterako. Berak hiru ogi mota ikusten ditu argi, industrialaren barnean bi mota ezberdintzen baititu: industrial kimikoa eta industrial ekologikoa. Azken horri ekologikoa deitzen bazaio ere, argi dio horrek ere ez duela eurenarekiko antzekotasunik: "Araudi ekologikoa asko malgutu da eta izoztutako masa eta gehigarriak onartzen dira. Ekologikoak ez direnean horien kopurua handiagoa izango da, baina ekologikoak ere badi-tu". Ogi artisauak zereal ekologikoarekin egiten dituzte, eta ez dute produktu kimiko sintetikorik izaten. "Oinarrizko materia guztiak hain dira sinpleak, ez du inongo gehigarririk. Osasunerako askoz hobeak direla argi dugu".

Ogiek etiketarik ez izateari ere erreparatu dio Goiabe baserriko bikoteak. Nabarmentzen dute edozein elikagaik duela etiketa bat, eta ez dutela ulertzen ogiak ez izatearen arrazoia. Argi eta garbi esan dute: "Ez da berdina jangarria eta elikadura".

Askotan "artisansu" hitzari loturiko guztia garestizat jotzen dela uste dute, eta hori ez dela horrela: "Konprobatu dugu industrial arrunta eta gure ogiaren artean ez dagoela prezioan alde handirik. Merkeagoak direla dirudien arren, pisan jarriz gero ezetz ikusiko genuke. Gainontzekoa haizea baita". Denda batean frogatu zuten hori, bertan saltzen zuten ogi arrunta eta euren konparatu zituzten, eta 10 zentimoko aldea ze-

goen. "Ekologikoa izatea ez da luxu bat, askotan eliteko zerbait dirudi, baina ez da horrela, denen eskura beharko luke". Ogi hau, beste hainbat ez bezala, ondo gordez gero, hiru egunez oso ongi mantentzen dela ziurtatzen dute, eta astebe-tera xerra bat berotu eta "samur-samurra" geratzen dela ere bai.

"Munduko ogi onena" beraiena dela behin baino gehiagotan esan diete aiarrei; "munduko ogi guztiak ezagutzen ez dituztela erantzuten diegu halakoetan", dio barrez Bastarrikak. Eta horri berehala gehitu dio beste lore bat Albisuk: "Gure ogiak Redbullak baino mendekotasun handiagoa sortzen duela esan zidaten". Edonola ere, hain ona ez dagoenean ere esatea faltan botatzen dute: "Beti ez da berdin ateratzen, eguraldiak, haizeak, hezetasunak, ilargiak... guztiak du eragina ogian. Gauza bizi bat da, ez da beti berdina".

Bi familien ogiak denda bertsuetan eros litezke; Azpeitia inguruko, Hernaniko, Eibarko, Andoingo, Villabonako, Donostiako eta Zarauzko denda ekologi-koetako, denda txikietako eta harategie-tako apalak betetzen dituzte.

### Azidoagoa

Ogi artisau ekologikoak jogurtaren antzeko zaporea duela diote, horixe dela berezitasun nagusienetako bat. Zapora horren ondorioz, ohiko ogiek edo ogi arruntek baino gatz gutxiago erabiltzen dute. Osasungarriagoa ere badela ziur-



Xabier Odriozola eta Eneka Lazkano Errezilgo Solaka baserrian.

tatzen dute, bitamina eta mineraletan ogi zuria baino aberatsagoa dela, besteak beste.

Errezilgo eta Aiako baserrietan ogi mota bat baino gehiago egiten dute: espeltaz, gariz eta zekalez. Errezilen ogi zuria ere egiten dute, baserrietan ohikoa dena, baina garbi dute euren kuttunenak gainontzeko hirurak direla.

Albisuk nabarmendu du Biolur elkarrean galdetuta ikasi litekeela ogia egiten, berak ere hainbati erakutsi diela, baina aitzindariak Xabier Akizu eta Marilu Gardoki Ezkio-Itsasoko Hariztizabal baserrikoak direla, eta egun Gipuzkoan ogia egiten duten gehienek eurekin ikasi dutela. Eskertzeko moduko lana egin dutela diote. Azaldu duenez, badaude *gourmet* moduan ogia egiten dutenak ere, "halako irinarekin honelakoa ateratzen da... irakurri izan dut nonahi", irribarre egin du kontatzean. Argi diote guztiek, euren ustez, edonork egin dezakeela ogia. "Denbora da ogia egiteko beharrezkoa den bakarra, etxe guztietan lortu liteke ogi goxoa egitea", esan du Lazkano okinak.

Bi baserrietan nabarmendu dute prozesua hasieratik amaierara ezagutzeko parada dela gauza ederrenetako bat, dena eurak kontrolatzen dutelako. Euren esku ez dagoen bakarra garia da. Baina hori ere nondik ekarri eta zein nekazariri erosi taldean erabakitzen dute, Biolurren dauden okinen artean. "Arabian eta Nafarroan erosi izan dugu. Dena

den, aurtun Burgostik ekarri behar izan dugu, hemen ez dugulako lortu. Baina ahalik eta gertuen eskuratzen saiatzen gara", dio Lazkanok.

#### Garia hazten ikusten

Gipuzkoan garia ereiten ere hasi dira. Eibarko Sosola baserria, Errezilgo Irure txikikoa eta Errezilgo Solaka baserriko familiek parte hartu dute bertan: "Gure etxe inguruko sail txiki bat hartu eta garia eroin dugu bertan", dio Lazkanok.

Iaz, lehen saiakeran, emaitza oso onak izan zituztela diote: "Gure etxean behintzat esperientzia oso ona izan da, eta horregatik errepikatu dugu. Orain Britainiatik ekarritako zazpi barietateko nahasketa hazten ari da gure etxe aurreko lursail txiki batean". Dena dela, arazo batekin egin dute topo: iaz 600 kilo jaso zituzten, eta kopuru horrek bi hilabetez soilik asetzen ditu euren beharrak. Beraz, oraingoz, ez dute etxe alboko lurretan behar adina garia ateratzea lortu. Horri ere irtenbidea bilatzeke asmoz, iaz jasotako zati bat Nafarroako ekoizle bati eraman zioten, berak hektarea batean erein eta gehiago zabaldu zezan.

"Klimagatik eta orografiagatik lur gutxi dago garitarako, baina ardoa egiten duenak mahatsa ezagutu behar duen bezala, gure gariaren prozesua zein den eta nolakoa den jakin nahi dugu", dio Lazkanok. Hala, ogiaren sekretu guzti-guztiak eskuetan izango dituzte. ■



**MARCOS**  
okindegia

**Benetako  
aitzinako ogia**

© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)



# GATIKA

## HERRI EUSKALDUNA ERDALDUNTZEAREN ARRAZOIAK AZTERTZEN

90eko hamarkadan Gatika (Bizkaia) erakargarri bihurtu zen askorentzat eta saldu egin ziren sasoi hartan egindako etxe guztiak. Aldi berean, euskararen erabilera %90etik %71ra jaitsi zen. Ia beste 300 etxe aurreikusten dituzte, eta hizkuntzan izan dezakeen eraginari aurre egiteko pentsatzen hasteko ordua da, eskura lehen baino tresna gehiago baitaude, tartean, Udal Legearen 7. artikulua.



**Marijo Deogracias**

@desplazatua

ARGAZKIA: IÑIGO AZKONA

Imajinatzen duzue euskaraz hitz egiten jakitea ezinbesteko baldintza izatea Euskal Herriko bizilagun iraunkorra izateko? Åland uharteetan (Finlandia) suediera derrigorrezkoa da hango bizilagun iraunkorra izateko: bizileku eskubidea emateko ahalmena dauka uharteko gobernuak eta eskubide hori lortzeko suedieraz hitz egiteko gai izatea da hirugarren betekizuna. Adibide horixe, beste batzuen artean, aztertu zuten *Lurraldea eta Hizkuntza* jardunaldietan, 2014an, hizkuntzaren arnagunearen adibide adierazgarria delako onartu dituen hizkuntza babesteko legeei esker.

Hizkuntza babesteko asmoz ere, orain dela gutxi ezagutu dugu nola Galesko Bangor herrian, bertan behera laga duten 366 etxebizitza egiteko asmoa. Erabakia ez da era arbitrarioan hartu: hango Planifikazio Legea aldatu zutenetik, edozein hirigintza egitasmo baimentzeko ezinbestekoa da alde zuzenetik aztertzea galeseran izan dezakeen eragina.

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) neurtzeko tresnaren hainbat esperientziak aritu dira hirugarrenez egin diren *Lurraldea eta Hizkuntza* jardunaldietan. UEUK, UEMAK, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kontseiluak elkarlanean antolatuta, maiatzaren 12an egin dira, Donostian, *Oraina eta Geroa* leloarekin.

Une egokian datoz jardunaldiak, Eusko Legebiltzarrak onartu berri duen

Udal Legeak beren-beregi jasotzen baitu honakoa: “Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoa eragina izan dezaketeko proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira”. Beraz, UEMAK azpimarratu bezala, “ELERi ere lege babesa eman zaio, hirigintza planek hizkuntzan izango luketen eragina aztertzeko beharra ezarri”. Izan ere, lurraldea eta hizkuntza binomioaz aritzea hirigintzak euskararen erabileran duen inpaktuz jardutea da. Ikusi baita, orain baino lehen, euskararen arnagune gisa izendatu diren udalerriek zer nolako bilakaera izan duten, besteak beste, etxegintza masiboaren ondorioz: euskararen erabileraren jaitsiera –Iñaki Iurrebasok 2014an egindako udalerrri euskaldunen bilakaeraren inguruko azterketak erakutsi zituen zerbakiak–. Jakina, datuak ez dira beti matematika zehatzak, baina egoera ulertzen laguntzen dute.

### Gatika, herri euskalduna?

Iurrebasoren txostenean aipatzen zen adibideetako bat da Gatika. Mungiatik sei kilometrora, Uribe-Kosta eskualdean, herriguneak (Luberrietaondo urbanizazioa barne) eta bakarkako etxe

eta baserriak dituzten sakabanatutako bederatzi auzok osatzen dute herria. 1.660 lagun inguru bizi dira. 2001ean, 1.295 ziren eta, 1991n, berriz, 912 (Eus-tat). Begi-bistakoa, bizilagunen hazkunde. Gorakadan zeresana izan du etxegintza prozesuak: 1991tik 2011ra bikoiztu egin ziren etxeak, 340tik 706 izatera igaro zen Gatika. Onintze Amezaga zinegotzi eta UEMAREN zuzendaritza batzordekideak azaldu digunez, “1994-2004 hamarkadan egin zen etxebizitza kopuru handiena; gerora etxebizitza gehiago egin badira ere, ez da izan horrelako kopuruetan”.

### Etxeak gora, euskara behera

Denboran bat egiten dute etxegintza prozesuak eta euskararen erabileraren beherakadak. Gatika UEMAN sartu zenean, 1991n, euskararen ezagutza %90ekoa zen. Aldiz, 2011n, %71ra jaitsita zegoen. EAeko 2012ko inkesta soziolinguistikoa datuek diotenez, 4. gune soziolinguistikotik (biztanleriaren % 80 edo gehiago euskalduna) 3. gunea (% 50-80) jaitsi zen. Beraz, udalerrri euskalduna izateko UEMAK ezarritako %70eko indizea ozta-ozta gaintzen du gaur egun Gatikak. Amezagak aitortzen duenez, “inkestek esaten digutenaren arabera, euskaldunen kopurua jaitsi da, baina datu mingarriena da, euskaldunak garenontzat, euskal hiztunen artean



erabilera jaitxi dela”. Hala ere, “hiritatik pertsona erdaldunen etorrerak eragina izan badu ere, ez dut uste faktore bakarra izan denik. Egindako etxeetako asko gatikarrentzako etxebizitza-tasatuak izan ziren, eta salmenta libreko etxebizitza asko auzotarrek erosi zituzten”. Ildo berean mintzatu zaigu Jose Mari Markaide ere, udal zinegotzi eta euskalgintzan herrian ezaguna: “Beharrezana zegoelako egin ziren etxeak eta bai, hasierako fasean kanpotik etorri zen jende gehiena, baina bigarren eta hirugarren faseetan gatikarrak sartu ziren batez ere etxe berrietara”. Bere ustez, gaztelania gehiago berba egitea ez da etxe berriengatik bakarrik: “Uste dut gehiago dela guk, euskaldunok, ez dugulako euskaraz egiten. Egin kontu: jubilatuen etxean gehienak euskaldunak dira, baina gehien gaztelania entzuten da”.

### Gatikan euskaraz egin daiteke

Joera hori aldarazteko asmoz, euskara biziberritzeko gogoeta prozesua egiten ibili da hainbat herritar, Topaguneak sustatuta. Gurasolagun programa abiaraztea erabaki dute, baita herriko komertzioetan eragingo duen taldea osatzea ere. Amezagak dioenez, “prozesuak indar berriak ematen dizkigu gatikarroi gure hizkuntzaren etorkizunean pentsatzeko”. Baina berretsi egiten du ez dela ahaztu behar “pertsona bakoitzak dugun ardura gai horretan, batzuetan errazena besteengan jartzea baita”. Markaidek ere argi dauka: “Gatikan euskaraz bizi daiteke! Ez da ezin dela egin euskaraz, baina behar dena da denok hartzea egiteko konpromisoa”. Biek ala biek aitortzen dute herriko plazaren bueltan, ume eta gurasoei gaztelaniaz hitz egiten entzuten zaiela batez ere, eta “hor egin behar



Gaur egun 1.660 biztanle ditu Gatikak, 1991n 912. Etxebizitza gehien 1994-2004 tartean egin zen.

da esfortzua joera aldatzeko, ez bakarrik Udalak, guk geuk gatikar euskaldunok ere bai”, gehitu du Amezagak.

### Mamua ate joka

Åland uharteetara itzuliz, badago beste ezaugarri bat ere: bizilagun iraunkorra izateko eskubidea izan behar da ezinbestean jabego-eskubidea izateko. Unai Fernandez de Betoño EHuko irakasleak behin baino gehiagotan azaldu du urbanizazio-prozesu azkarrek errotik aldatzen dutela herrien kultura. Behar bada horregatik tentuz darabilte udaletik Gatikako Plan Orokor berria. Bizkaiko Foru Aldundiaren onespeneren zain ba-

dago ere, 294 etxebizitza egitea aurreikusten du planak (gaur egun okupatuta 565 etxebizitza daude; 156, hutsik). Markaideren ustez, “eskandaluzkoa” da egitasmoak aurreikusten duen etxe kopurua. “Beharrezana egon badago, baina ez hainbesterako”. Horregatik uste du, tokiko plan partzialak egiten direnean, kontuan izan beharko direla Udal Legeak jasotzen dituenak, hizkuntzaren normalizazioaren inguruan. Amezagak azpimarratu duenez, baina, “ziurrenik ez dira etxe denak egingo eta etxebizitzak egin baino lehenago, esparru bakoitza maila urbanistikoan kudeatu beharko da, beti ere legea betez”. ■





ESKOLARTEKO  
IPUIN LEHIAKETA



Mij  
Rafael  
Koleta

Zortziko txikia  
Bertsolaritza  
eskolan



# Fruitu berri bat



Jakoba Errekondo

[jakoba@bizibaratztea.eus](mailto:jakoba@bizibaratztea.eus)

Portugalgo erramuaz (*Prunus lusitana*), honela dio Wikipediak: Euskal Herrian desagertutzat ematen zen, baina ale bakan batzuk topatu ondoren, orain espezie mehatxatuen zerrendan dago. Gure lurreko landare berezia da. Toki epelak eta hezeak gustatzen zaizkio, erreka inguruak, behe laino tokiak... *Prunus* generoko gainontzeko espezieen antzera (muxika, abrikota, elorri beltza, arana, arbendola, paraguaioa, gerezia, ginda, oilarana...), hezurra du fruituaren barruan. Koxkor hori heldu-heldu egin da ere mikatza zaigu, eta ez dugu jaten; eskinoso, zozo, birigarro eta antzekoen pagotxa!

Egunen batean hasiko ote gara zuhaitz hori arbola bihurtzeko bidea egiten? Beste fruitu arbola guztiakin milaka urtean egindako lana honekin ere egin izan balitz, honezkeru erramu horren aleak jaten ariko ginatke. Bidea ez da zaila, baina bai luzea: zuhaitzetan gure gogoko ezaugarriak dituztenak aukeratzea. Eta berriro hautatzea. Eta ondorengo artean berriro hautatzea. Etengabeko hautatze bat da fruitu arbolen. Gure gustua aldatzen doa, eta



Portugalgo erramua (*Prunus lusitana*).

JAVIER MARTIN

berritasunak maite ditugu. Dotorezia punttua antzematen diogu beste inork baino lehenago zerbait ahoratu-eskuratu duenari...

Hautatze bidean, fruitua da bilatzen den marketako bat: ttiki, latz, mikatz eta berandu ematen dutenetatik abiatu eta fruitu gozotxoagoak, tamainaz handixeagoak, mami gehixeagoak, azal meheagoak, adierazle finagoak dituztenak, bereizi. Fruitu hori noiz-nolatan ematen dutenak: gaztexeagotan ematen hasten direnak, ale ugari emateko joera dutenak, urtero ematen dutenak edo urtebiak...

Zuhaitzaren forma ere beste hauta-marka bat izan daiteke: ttikia, hostotza

ez oso trinkoa duena... Zein lurretara egokitzeko gaitasuna duen ere erabakigarria izan daiteke: lur azidoak maite dituztenak, kare lurretan etor daitezkeenak...

Geure lurretan topatu diren Portugalgo erramu aleetatik abiatuta, agian egunen batean euskaldunen batek esan ahal izango du munduko bakarra dela espezie horretako fruituak ekoizten. Eta lehena. Garai batean kiwiarekin gertatu bezala. Eta makina bat sagar, udare, hur, intxaur eta abarrekin bezala.

Izena ere asmatu beharko diogu, "Portugalgo erramuaren igalia" ezin deituko diogu... Portugalekin beti zorretan izango gara, baina... Nik "zozaran" proposatzen dut, zozoaren arana. ■



**BIZENTAREN  
LUMAK**  
elhuyar da

Zelai Haundi, 3  
Osinalde Industrialdea  
Usurbil (Gipuzkoa)  
☎ 943 363 040  
[www.elhuyar.eus](http://www.elhuyar.eus)



**Euskal Herrian Euskaraz**  
Kale Berria, 4-6 / 1. ezkerria · Iruñea  
☎ 664 028 604  
[www.euskalherrianeuskaraz.eus](http://www.euskalherrianeuskaraz.eus)



**euskal herriko bilgune feminista**

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Andoain (Gipuzkoa)  
☎ 943 59 09 02  
[www.bilgunefeminista.eus](http://www.bilgunefeminista.eus)



LEKUKOARTU ELKARTEA

## Azoka, herriko altxorren plaza



**Garazi Zabaleta**  
@tirikitran

Mungia eta Busturia aldeko jende askoren agendetan gordeta dago hilabeteko lehen igandea: “Hileko lehen domekako azoka Arrietan” idatzita egonen da orrialde horretan, segur aski. Izan ere, 2013ko abuztutik hileroko-hileroko, hutsik egin gabe elkartzen dira herriko plazan hango ekoizleak eta inguruetak bizilagunak. Tokiko kontsumoa, ekonomia lokala eta bertako baserriarren jarduna bultzatzeko helburuarekin sortu zuten Lekukoartu Elkarte Arrietako (Bizkaia) baserriar eta artisauek. Behin azokaren ideia buruan zutela, aukera ezberdinak aztertu eta Arabako Gaubea herrian egiten dena hartu zuten eredu.

### Tokikoa eta sasoiak

Hilero hartzen dute parte azokan Arrietako baserriarrek, baina horiez gain, azoka bakoitzean inguruko herrietako zenbait ekoizle ere gonbidatzen dituzte.

Postuekin batera bestelako eskaintza ere egoten da azoka egunean: sasoiak produktuei lotutako tailerrak eta erakusketak (maiatzean, adibidez, erleen eta liztor asiarraren gainean aritu dira), kontzertuak, pintxo-poteak, haurrentzako ekintzak, txosna... “Azokak dimen-

sio zabalagoa hartzen du: giro paregabea izaten da, lagun artekoa, eta jendea oso gustura etortzen da egun-pasa”, dio Rosina Enzunza elkarteko kideak.

### Herritarrek azokaren parte

Hasieratik erantzun oso ona jaso du azokak, Enzunzaren arabera. “Argi genuen herritarrek honetan inplikatzeko beharrezko zela, eta lehen azokan, adibidez, baserriar baserri aritu ginen antzinako ortuko erremintak biltzen”, kontatu digu. Erreminta horiekin erakusketa egin zuten 2013ko lehen azoka hartan.

“Lekukoartu” izenak bi zentzu izan ditzake: lekukoa hartzea, tokikoa, bertakoa; eta lekukoa hartzea, erreleboa hartzea. Bi esanahi horiekin jokatu nahi izan zuten elkarteari izena ematean, eta bi esanahi horiek lantzen ari dira hilero: izan ere, tokiko produktuak bultzatzeaz gain, ekoizleen eta azokara hurbiltzen direnen artean asko gazteak dira. “Gazteak badatoz, nik badut esperantza etorkizunera begira”.

Ez da makala Arrieta bezalako herri txiki batentzat azokari esker eskualdean erreferente bihurtu izana. Segi dezatela, bada, lekukoa hartzen/ematen! ■

## BIZI BARATZEA

**Gure kultura iraultzen ari den liburua**

Bloga: [www.argaia.eu/bizi-baratzea](http://www.argaia.eu/bizi-baratzea)  
@bizibaratzea



### Eskaerak:

943 371 545 · [www.argaia.eu/denda](http://www.argaia.eu/denda)

Salneurria: 23 €  
Harpideentzat: 19,50 €

## AURKEZPEN HITZALDIAK

### Maiatzak 14: Busturia

Madariaga dorretxean (EAEko Biodibertsitate Zentroa), 11:30etan.

### Maiatzak 15: Arama

Lekua zehazteke, 12:00etan. San Isidro eguneko ospakizunen barruan.

### Maiatzak 17: Mañaria

Liburutegi zaharrean, 18:30etan. Kultur Astearren barruan. Udalak antolatuta.

### Maiatzak 18: Zarautz

Modelo zineman, 19:00etan.

### Maiatzak 19: Altza

Tomasene Kultur Etxean, 19:00etan. Bizarrain Euskara Elkarteak antolatuta.

### Ekainak 1: Otsagabia

Eskolan, ordua zehazteke.

### Ekainak 10: Mutriku

Galdona auzoko kanpinean, 20:00etan. Mutrikuko Baserri Elkarteak antolatuta.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

[sustapena@argaia.eu](mailto:sustapena@argaia.eu)  
943 371 545

# MUSA HILTZEA MEREZI IZAN ZUEN?



Nagore Irazustabarrena  
Uranga

@irazustabarrena

Mexiko Hiria, 1951ko irailaren 6a. William S. Burroughs idazleak Joan Vollmer emaztea hil zuen buruan tiroa jota. Burroughsek poliziari emandako lehen bertsioaren arabera, festa batean zeudela bikoteak Gilen Tellena egitea erabaki zuen. Sagarraren ordezkari edalontzi bete whisky jarri omen zuen emaztearen buru gainean. Baleztaaren ordezkari, berriaz, 38 kalibreko errebolberrera erabili zuen, eta itua jo beharrean Joanen burua zulatu zuen.

Bikotea aurreko urtean iritsi zen Mexikora, Burroughsek Louisianan betetzeke zeukan kartzela zigorretik ihesi. Ordurako banantzekotan omen ziren. Vollmer anfetaminak uzten ari zen, alkoholaren "laguntzaz"; Burroughs, aldiz, heroinarik ezean, Benzadrina neurritz kanpo hartzen hasi zen; eta biek ala biek gehiegi edan omen zuten gau hartan.

Tiroa hain modu zorigaitzokoa huts egiteagatik hamahiru egunez giltzapean egon ondoren, Burroughsek hasierako bertsioa aldatu zuen Bernabé Jurado abokatuaren gomendioz: errebolberrera kargatuta zegoen ala ez egiaztatzen ari zela ustekabea egin omen zuen tiro. Familia aberatseko semea izanik, funtzionarioak, abokatuak, lekukoak eta balistika adituak erosi zituen eta, azkenean, ez zuen beste zigorrik bete behar izan emaztea hiltzeagatik.



Ezkerrean, Joan Vollmer (1923-1951) Beat belaunaldiko kidea. Alboan haren senar William S. Burroughs (1914-1997) 1953an, Vollmer nahi gabe hil eta bi urtera.

Eta gainera, Burroughsen beraren hitzetan, nolabaiteko etekina atera zion gertaerari: "Joanen heriotzarengatik ez balitz sekula idazle ez nintzatekeela izango ondorioztatu behar izan dut, tamalez (...) Joanen heriotzak inbaditzailearekin, Espiritu Zatarrarekin, harremanetan jarri ninduen, bizi osoko gataska batean sartu ninduen, eta handik irteteko aukera bakarria idaztea nuen", 1953an idatzi eta 1985ean argitaratu zuen *Queer* nobelaren hitzaurrean jaso zuenez.

Emazteari, ordea, ez zion ezertarako balio izan. Brenda Knightek zera idatzi zuen hari buruz *The women of the Beat Generation* lanean: "Joan Vollmer Adams Burroughs funtsezkoa izan zen Beat iraultzaren sorreran; izan ere,



Beat motorra abiarazi zuen erregaia Joanek ekarri zuen, mezenas zein musa gisa. New Yorken zeukan apartamentua Beat belaunaldia eratzeko funtsezko rola jokatu zuten hainbat pertsonaren bilgune izan zen; (...) oso azkarra eta filosofian nahiz literaturan aditua, Beat idazle nagusien, Allen [Ginsberg], Jack [Kerouac] eta Billen [Burroughs] adimenari punta atera zion zorroztarria izan zen Joan. Taldeko kide zoliena zen eta haren izaera irmo eta ausartak Beat belaunaldia sentsibilitate berri bate-rantz bultzatu zuen".

Leela Ginelle kazetari eta antzerki-gilearen hitzetan, 28 urterekin hildako poeta "Burroughsen historiako oin-ohar xelebre bat besterik ez da orain". ■



ADOLF NORTHEN

## Hotzaren eta zorigaitz historikoen arteko lotura

Nazioarteko ikerlari talde batek Tatra mendietako (Eslovakia) 545 zuhaitz aztertu ditu dendrokronologiaren bidez, eta horri esker azken milurteko Europako klimaren gorabeheren berri jaso dute. *Proceedings of the National Academy of Sciences* aldizkarian jakinarazi dutenez, garai hotzenak bat datoz gerra, gatazka, izurrite, migrazio mugimendu

masibo eta bestelako gertaera tragikoen. Zehazki, muturreko hotza egin zuen Izurri Beltzaren, Hogeita Hamar Urteko Gerraren eta Napoleonen Errusiako kanpainaren garaietan.

Hala ere, zientzialariek zehurtiaz jakatu dute ondorioak ateratzeko orduan, "kulturaren eta klimaren arteko erlazioak konplexuegiak baitira orokortzeko". ■



Markina-Xemeinen apirilaren 28an eragile eta harpidedunekin ARGIA Eguna prestatzeko eginiko bileran (eskualdean egin diren lau bileretako batean). Emakumeak nagusi!

## Eta 2016ko ARGIA Eguna doa... Lea-Artibaira!



Itsaso Zubiria Etxeberria  
@itsasozubiria

Komunitatea gora eta komunitatea behera. ARGIAko hauek ez daukate bes-terik buruan. Eta txikiaren kontu hori... Noiztik goaz euskaldunok txikira? Hor-dago handira beti! Baina bueno, berezi xamarrak izan dira beti ARGIAkoak, eta horretan utziko dugu.

Iragarri dute 2016ko ARGIA Eguna; Ondarroan izango da, urriaren 1ean. Eta komunitatea sendotzearen kontu horrekin, hasiak dira lehen bilerak Lea-Artibaiko lau herritan. Euskal Herriko eskualde euskaldunena da eta euskarazko komunikabide txikiarentzat balio berezia du horrek. Baina eraldaketa sozialean eta herrigintzan diharduten eragileak aktibo dauden ingurua ere bada, eta ARGIAren baloreek festa egunean presentzia izan dezaten beharrezkoak dira talde eta norbanako hoiek. Eskualdeko harpidedunei ere bidali zaie eguna antolatuzeko lanetan parte hartzeko gonbita. Guztien artean ARGIAk bere egiten dituen baloreetan oinarritutako jai egun txikia prestatzea da helburua,

komunitatean; ARGIAko lantaldea, harpidedunak eta eragile eta norbanakoak elkarlanean; baloreak praktikan jarritz; eta kuantitatiboari baino kualitatiboari, egiteko moduari garrantzia emanez.

Lehen harremanak garatzeari udaberrian sartzearekin batera ekin zaio. Gerturatu dira talde feministak, natur taldeak, kultur eragileak, euskalgintzan dihardutenak, memoria historikoaren gaia lantzen ari direnak... Dena dela, irekiak dira bilerak eta sarean emango da deialdien berri. Gerturatu eta lagundu nahi duena ongi etorria izango da.

Egitaraua zehaztu gabe dago, baina aurtun ere izango dira inguru natural eta kulturala ezagutzeko ibilaldiak, bertako produktuekin prestatutako herri bazkaria, naziotasun agiri arrotzen 3. jaurtiketa edo ARGIA zaleen Topaketa. Oraindik, baina, argitu ez zaidan zailtza bat dabilkit buruan: nola egingo dute aurtengo kartela, ondarrutarez? ARGIA Egune Ondarrun ixengo ra edo horrelako zerbait imajinatzen dut. ■

*“Zorionak, ez dakizue zelako ekarpena egiten diozuen eta zer pozik hartzen zaituzten Iurgik! Eta eskerrik asko ni ere zuen ekarpena helarazita oso-oso ondo geratzen naizelako! Segi horrela”*

**Arkaitz Zarraga,**  
lurji Garitagoitia preso  
politikoaren laguna

## Ikastolen Elkartearekin hitzarmena



DANI BLANCO

Ikastolen Elkartearekin hitzarmena sinatu dugu, ikastolen jaien informazioa ARGIA-n hedatzeko. Argazkian, Ikastolen Elkarteak Koldo Tellitu eta ARGIAko Bego Zuza.

## AGENDA

### Lasarte-Oria ikusteko beste betaurrekoak, ARGIAk eta Ttakunek elkarlanean antolatutako ekimena:

- *Trantsizioak* erakusketa ikusgai, maiatzaren 9tik 14ra: Mercero Aretoan, 18:00etatik 20:00etara.
- ARGIAko lantegian bisita gidatua: maiatzaren 10ean, 19:00etan, ARGIAren egoitzan (Zirkuitu ibilbidea, 15. pabilioia).
- *Lasarte-Orian euskararen bilakaera: atzera begira aurrera begiratzeko* mahai-ingurua egingo da maiatzaren 12an, 19:00etan, Villa Mirentxun. Hizlariak Mailu Arruti (Ttakun elkartearen eta AEKn aritua), Pello Sasiain (Euskara zinegotzi ohia) eta Marga Iturriza (Sasoeta-Zamaburu ikastetxeko irakaslea) izango dira.

# GIZA ESKUBIDEEN ZINEMA, KONTZIENTZIAN ERAGITEKO TRESNA

Zinema eta giza eskubideak uztartuz, ikuslearengan gogoeta bultzatzea da Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren helburua. Aurtengo XIV. edizioa apirilaren 15etik 22ra bitartean egin da eta askotariko ikuspuntuak bildu dituen programazio txukuna eskaini du, Euskal Herrian eta nazioartean ekoiztutako fikzio, animazio eta dokumentalez zein laburrez osatua. Emanaldi bakoitzean film luzearen aurretik proiektatzen dute film labur bat eta, hain zuzen, hori da Zinemaldiaren ezaugarri aberatsenetariko bat; ikusgarritasun aukera murriztagoa duten lanei lekua egitea.



**Miren Manias**

@beavis

ARGAZKIAK: GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Zinemazaleak ez ezik, giza eskubideei lotutako bestelako eragileak ere (elkar-teak, adituak, biktimak, eta abar) hartzen ditu Donostiako egitasmoak eta gero eta lagun gehiago biltzen ditu. Audientziari bere burua pantaila handian ordezkatua ikustea gustatzen zaion seinale. Errealitate hori aintzat hartuta, lehendabiziko aldiz egin dute aurten Human Rights Film Network Forum Europarra. San Telmo Museoa, bi egun iraun zuen ekitaldian, Europako zinemagileak eta ekintzaileak migrazioaz eta giza eskubideen gaineko zinemaren inpaktuaz mintzatu ziren. Beste modu batean esanda, zinemak mundua aldatzeko gaitasunik duen ala ez galderari erantzuten saiatu ziren. Hori al da, ordea, zinemaren eginkizuna?

## Forum europarra, eztabaidaleku

Xuban Intxausti Donostia2016ren baitako Europa Transit proiektuaren zuzendaria da eta proiektu honen funtsa gerra edo gatazkaren lekuko izan diren Europako hamar hiritan dokumental bat egitea da. Hark bizitako esperientzien arabera, halako egoeretan kamera jartzeko momentuan "errealitatearen izaera naturala aldatzen da automatikoki". Oinarrian, kontatuko duenaren ondorioei die beldurra giza eskubideen urraketa sufritu duen biktimak eta, be-

raz, ez du inoiz modu garbian hitz egingo kameraren aurrean. Baldintza horretatik abiatuta, grabatuko duen egoera hori aurrez ondo ulertzeko dokumentazio lan berezia egin behar du zinemagileak. "Kanpotarra izanik, zaila da pertsona horien ahotsa jasotzea", dio Intxaustik.

Uste ohi da giza eskubideen gaineko zinemak erakutsi eta salatu nahi duela halako biktimen egoera munduko beste edozein txokotan. Hedabideek kontatzen ez duten errealitatea ipini nahi duela gure begien aurrean. Baina filmek badute bestelako erabilpenik ere. Intxaustik uste du zinemagilearen lana dela kontzeptu berriak aurkitzea eta horiek igortzea: "Ikusleari bakarrik ez, ordea, giza eskubideen zinemak eman diezaiok ez zerbait biktimari ere". Marc Serra da *Tarajal: desmontando la impunidad en la frontera sur* (2015) dokumentalaren zuzendarietako bat eta berak uste du halako lanak saiatzen direla galdera honi erantzuten: zer gertatzen da? "Giza eskubideen zinemak balio du, guxtienez, urraketak ematen diren kasuak dokumentatuak gera daitezten, izan ere, gezur ugari esaten da". Horren ondotik, egoera horien gaineko gogoeta bultzatu behar du ikuslearengan.

Forum Europarrean parte hartu duten beste kide batzuen ustez, berriz, ez dago urruti joan beharrik giza es-

kubideen urraketa kasuak aurkitzeko. "Ohitura dago fokua kanpoan jartzeko, baina arrazismoa etxean bertan dugu", azpimarratu du Rosabel Argote CEAR Euskadi Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordeko kideak. Areago, aitortu du indar txikia dutela gaur egun berak ordezkatzen duena bezalako erakunde txostenek, horregatik, Argotek garrantzia ematen dio zinematik jendearen alderdi emozionalean eragiteko duen gaitasunari. Kontzientziak astintzeko.

Iñigo Mijangos SMH Salvamento Marítimo Humanitario taldeko kidea da, sorosle eta itsas salbamendu lanak egiten dituen irabazi asmorik gabeko Euskadiko erakundea. Haien lana da itsasoa zeharkatzera bultzatuta dauden errefuxiatuei laguntza ematea. Mijangos suhiltzailea da ofizioz. Salbamendu esperientzietan ikusi du errefuxiatuen aurkako jarrera oso hedatua dagoela jende arruntaren artean. "Hasiara batean, eman dezake biktimak artatzea gauza polita dela; pentsa, zonaldeko ekonomia (hotelak, jatetxeak...) sustatzeko balio dezakeela ere pentsatzen du askok. Arazoa, ordea, denborarekin dator". Horregatik dio herritarren kontzientzia lantzea ezinbesteko ariketa dela.

Eragile guztiak bat datoz aspektu horretan, baina azpimarratzen dute benetako arazoa egungo politika neoliberal

dela. Hain zuzen, aginte mota horrek bultzatu du egungo giza eskubideen etengabeko bortxaketa. Giacomo Sferlazzo Lampedusa In Festival jaialdiko ordezkariak dio, “xede politikoen eta merkatu globalaren aginduz”, pasaporteak berak sortu zuela lehendabiziko aldiz etorkin erregularraren figura. “Pasaportea da gure arteko ezberdintasunen oinarria”. 1990era arte ez zen giza eskubideen gaineko legerik gauzatu eta etorkinen estatutua Europar Batasunarekin batera eratu zen ofizialki. Sferlazzoren arabera, giza eskubideak aldarrikatzen dituen Europa merkatuaren lurraldea besterik ez da. “Instituzionalizazioaren bitartez finantzatu ditugu errefuxiatuek egun bizi dituzten gatazka eta salbuespen egoerak. Militarizazioarekin, berriz, murriztu egin dugu minimora haien ongizate estatua”.

“Giza eskubideen zinemaldietara erantzun bila dator audientzia”. Hori uste du Tadeusz Straczek Watch Docs txekiar zinema jaialdiko arduradunak. Mota horretako zinemak, beraz, badu “kontra-informazio” funtzioa. Are gehiago, haren esanetan “zinemak ordezkatu dezake zerbitzu publiko bat”. Straczekekin sinesten du ikusleak ohiko hedabideetatik at dagoen errealitatea ezagutzeari, bereganatzen duela argudio sendoa emateko gaitasuna. Jaialdiek, berriz, espazio espezifikoa eskaintzen diete giza eskubideei eta beste emaitzetako bat da mundu mailako eragileen arteko sareak eraikitzea.

### Gatlif, erromantizismotik errealismora

Donostiakoak 2007tik saritzen du zinemaren alorreko norbait giza eskubideen alde egindako lanagatik. Aurtengo sari-duna Tony Gatlif (1948, Aljeria) aktore, gidoilari, musikari eta zuzendaria izan da, hain zuzen, ijitoen errealitatea eta horien gizatasauna pantailaratzeagatik eta egindako ibilbide konprometituagatik. Bere zinemak izandako inaktuaz galdetuta, ordea, garbi du: “Zinemaren helburua ez da mundua aldatzea, eragile politikoen ardura da hori”. Aitortzen du hainbat urtez zinemaren bitartez egindako borroka aktibitate politikoa izan dela berarentzat, baina jada ez du gazetetan izandako erromantizismorik. “Ez naiz inozoa”, dio.

Europar erredua salatu du Gatlifek. Bere ustez “mundu hau oso inaktibo



## SARITUTAKO FILMAK

### Ikusleen Saria:

*Diez años y divorciada* (2015)

Zuzendaria: Khadija Al-Salami.

Herrialdeak: Yemen, Frantzia eta Arabiar Emirerri Batuak.

### Amnesty International erakundeak banatzen duen Film Onenari Saria:

*Among the Believers* (2015)

Zuzendaria: Hemal Trivedi eta Mohammed Ali Naqvi.

Herrialdeak: Erresuma Batua eta Pakistan.

### Gazte Epaimahaiaren Film Labur Onenari Saria:

*Para Sonia* (2015)

Zuzendaria: Sergio Milán.

Herrialdea: Espainia.

dago. Erabat geldirik sumatzen dut”. Frantzian, esaterako, politika arloa noraezean dago eta jende gutxi batu da giza eskubideak aldarrikatzeko. Horregatik, egungo egoera gordinak pertsonalki eragiten badio ere, zinemak eztabaidarako tarteak soilik eskaintzen duela uste du, zinemagilearen pentsamenduak eta gogoetak helarazteko tresnatzat du, ez besterik.

Zinema mundua aldatzeko gai izan ala ez, Giza Eskubideen Donostiako Zinemaldiak pauso bat harago eman du aurtengoa: Forum Europarrean parte hartu duten eragileen aitortpen bateratua argitaratu dute, europar estatuen migrazio-politika salatuz eta eteteko eskatuz. Sinatzaileek gogoratu nahi dute Europar Batasuna osatzen duten estatu guztien betebeharrak dela herritar guztien giza eskubideak bermatzea, horien “nazio-tasuna edo jatorria zein den kontuan hartu gabe”. ■

# KULTURKRITIKA

## » LIBURUA

# Bizitzaren gatza eta piperra



Amaia Alvarez Uria



### **Autoreak plazara**

GARAZI ARRULA RUIZ  
DANELE SARRIUGARTE  
MOCHALES

Crowdfunding, 2015

2015eko udazkenean Garazi Arrula Ruizek eta Danele Sarriugarte Mochalesek *Autoreak plazara* eta *Itzultzaileak mintzo* liburuak plazaratu zituzten *crowdfunding* bati esker. Bertan, aurreko hiru urteetan elikatu zuten *Elearazi* blogeko uztaren hautaketa argitaratu dute, online hasitakoa paperean ipiniz eta proiektu horri amaiera emanez.

Lehen liburuan fikzioa eta ez-fikzioa atalak ditugu, blogeko “euskarara ekarriak” ataleko itzulpen batzuk, eta bigarren liburuan blogeko “hausnarketa” ataleko itzulpengintzaren inguruko elkarrizketa eta kronika batzuk. Jarraian lehenengo liburuari buruz arituko gara. Bi dira aipatu nahi ditudan honen ekarpenak: literaturarekikoa batetik eta feminismoa eta genero ikasketekikoa bestetik.

Euskal literatura XX. mendetik hona gero eta anitzagoa eta aberatsagoa dela esan daiteke, eta honetan itzulpenek egin duten lana aipagarria da. Badirudi euskal literaturaren irakurleen artean gutxi irakurtzen direla, eta irakurle taldeetan gutxi programatzen direla. Aukera emango bagenie beste kultura, bizi-pen eta kokapen batzuk ezagutuko genituzke eta “literatura unibertsala” ezagutzean “euskal literatura” beste begi batzuekin begiratu ahalko genuke. Ez da erakargarria?

Itzulpenon bidez autore eta lan batzuk ezagutzera ematea eskertu nahi diet *Elearazikoei*, eta haiekin, bizitzeko eta bizitzaz aritzeko beste modu batzuk. Testuotan suizidak, putak, drogazaleak, sorginak, kanibalak edo lesbianak guri hizketan jardungo dute, eta Europatik Ameriketara edo Afrikara salto egingo dugu. Batzuetan irakurtzen amaitze-

rakoan denboratxo bat hartu beharko dugu hitzok digeritzeko, beste batzuetan barre egingo dugu irakurri ahala, eta testu bakoitzak bere aztarna utziko digu, gu kolokan jarritz, espero gabeko galderak egingez.

Bestalde, euskarazko feminismoa eta genero ikasketetan egindako ekarpena eskertu nahiko nieke. EDO! argialetxearen *Genero ariketak* lanean Virginie Despentes, Itziar Ziga, Beatriz Preciado, Lucas Platero eta Javier Saez ditugu euskaraz, eta UEUK plazaratutako *Diskurtsoak*, *eraikuntzak*, *gorputzak* liburuan Monique Wittig, Denise Riley, Elizabeth Grosz eta Anne Fausto-Sterling. *Elearaziren Autoreak plazaran* berriz, besteak beste Pedro Lemebel, Audre Lorde, Cherrie Moraga, Paco Vidarte eta Assata Shakur-en testu mamitsuak ditugu, edozein eskola feministarentzat luxuzko bibliografia euskaraz.

Literatura, itzulpena eta hausnarketa eskaintzen dizkigute blog eta liburuetan, ingelesek *food for thought* eta *think out the box* esango luketena. Irakurtzen jarraitzeko: [Elearazi.eizie.eus](http://Elearazi.eizie.eus). ■

Garazi Arrula Ruiz eta Danele Sarriugarte Mochales.





## » TELEGRAMA

Kurt Cobain Nirvanako abeslariari buruz dena dakizula uste duzu? Basauriko Social antzokian proiektatuko duten **Kurt Cobain: montage of heck** dokumentalak harritu egingo zaitu agian. Maiatzaren 19an, 19:30ean edo 22:00etan **STOP Las Kassettes** eta **Bitkitures** taldeek maiatzaren 13an **Hondarribiko Psilocybenean** eskainiko duten kontzertuarekin ondo pasatzea ziurtatuta dago: 22:00etatik aurrera, 5 euroren truke **STOP** Urdiñarbeko **Musikaren Eguna** programa bete-beteta dator: maiatzaren 13tik 15era antzezlanak, kantu txapelketa, Jupiter Jon eta Izaki Gardenak taldeen kontzertua... **STOP**

## » DISKOA

## Irla, natura eta senaren indarra



Iker Barandiaran



**Santa Rosa**  
CAPSULA

Bonberenea Ekintzak, 2016

Capsula hirukote argentinar-bilbotarra.



Capsula talde bilbotar-argentinarra ezaguna da orriotan, eta oro har, Euskal Herriko eta kanpoko rock eszenan. Musikarako bizi dira (ez da hain justu musikari esker bizitzea), kategoriako diskoak eta zuzenekoak egiten dituzte eta bi hamarkada luzetan ahal izan duten leku guztietan jo dute. Asko dira ibilbide horretan egindako lorpenak: horien artean, nabarmenenak Austingo (AEB) SXSW jaialdi entzutetsuan urtero parte hartzeko plaza lortu izana, Bowieren eskuineko beso den Tony Viscontirekin grabatu izana eta Ziggy Stardusten omenezko luxuzko emanaldia hainbat alditan gauzatu izana. Aurten, baina, albiste dira beste bi arrazoiengatik: bata, Pearl Jam taldeak Argentinako emanaldi bakarrerako kontzertua egiten gonbidatzea; eta hamaikagarren diskoa, *Santa Rosa*, argitaratu izana.

Iaz argitaratuko *Dead or alive* zuzenekoaren ostean, kantu berriekekin datoz Martin, Coni eta Guantxe; azken hau donostiarra eta Teen Dogs, Señor No, Lobo Electrico eta Inoren Ero Ni taldeetan ibilitako bateria jotzaile puntakoa.

Honako diskoak badu betiko Capsulatik (rock bizia, garagea, psikodelia...); ekoizle mitikoei atseden eman eta Bilbon taldeak duen Silver Recordings estudioan kantuak grabatu eta nahastu dituzte, Martin L. Gue-

vara taldekideak ekoizle lanak eginez, eta emaitza Eduardo Bergalok masterizatu du Puro Masteringen, Argentinan.

Funtsean 70eko hamarkadako ukitu txikiagoa du: *Dirty ratek* Hendrix eta Beasts Of Bourbon soul-arekin mozkortu ditu, oso itsaskorra da. *Candle candle* zamalkada post-rockeroaren eraginez misterioitsuagoa bilakatzen da. *No contestas* piezak garage-punk taldeen soinua du eta surf ilun eta gizatarrenean murgiltzen da Dead Kennedys edo Niños con Bombasen mehatxupear. *Tierra girando* ere Jello Biafraren eraginpean dago, baina elektro oso ilun, intentsu eta inguratzaile mudatzen doa. *Hikikomori* rock gogorra da, petacoko glama, ia pub-rockeroa. *Santa Rosaren* ukitu hippieak iruzur egiten digu, kantuak urakaren begira eramaten gaituelako. *Dali's face* Cramps, B52's eta Dead Kennedys purua da, iluna, lehegarria eta dantzagarria. *Moving mutant* pop, psikodelia eta rock klasikoa da. *Past lives* kantuak Dylan distiratsuenarengandik edaten du Flying Nunen lainoek harrapatu artean. *Burning heartsek* taupada latinoak du eta garage autentikoenaren arrasto eta irakindaldia. *Everything you want* new wave da, eta baita estadio-rocka ere, hit! bat. *They are new models* garage-punk-rock potentea da eta, gainera, itsaskorra. *You're part of the sun* bukaera gabeko kiribila. Eta CDan bonus track gisa, Delirium Tremensen *Ikusi eta ikasi* hirukoteak lehen aldiz euskarari helduz. ■

# PLAZETATIK ERRETIROA HARTU DU MAISUAK

75 urte bete dituen egunean (maiatzaren 3an) iragarri du Xabier Amuriza Sarrionandiak bertsotatik erretiroa hartu duela. 1980an, txapela buruan, bertsogintza irauli eta bertso eskolak martxan jarri zituen eta geroztik etengabe aritu da bideak urratzen.



Estitxu Eizagirre Kerejeta  
@eeizagirre

Euskadi Irratiko Faktoria saioan eman zuen albistea: “Nire gazia eta gozoa gaur da. Gaur egiten ditut 75 urte eta entzule guztiei jakinarazi nahi diet, gaur hartu dudala bertsolaritza uzteko erabakia. Jendaurreko ibilera uztera noa. Gaurko egunez, 7 urte egin nituen egunean, tabernan kantatu nuen jendaurreko lehen bertsoa, aitarekin. Beste sasi bertsolari batek txapela pasa zuen eta garai hartarako dirutza batu zuen. Geroztik, hemen gaude. Gaur amaitu dut ibilbide hori”. Azken hiru saioak aipatu zituen, ingurukoek azkenak izango zirela jakinik antolatu zituztenak: apirilaren 22an Legazpin; Bilboko San Anton plaza atzeko tabernetan; eta gehien “hunkitu” duena, apirilaren 29an Altzon. Altzon egin zuen hura, “azken” jendaurreko bertso-afaria, alaba Mirenekin egin zuen. Erreleboa emanda utziko du, beraz, plaza. (bertsoa.com-en dago ikusgai Altzon egindako elkarrizketa eta kantatu zuen azken agurra).

## Kartzelan erretiroa bertsogintza berria


1965ean apaiz egin zen, eta 1968tik aurrera, Francoren diktadura garaian, zazpi urte egin zituen preso, hiru espetxealditan. 1976an utzi zuen apaizgintza eta bertso ibilbideari ekin zion. Bi aldiz izan da Euskal Herriko bertsolari

*Merezi duen despedida emateko, hainbat ekintza prestatzen ari dira bere inguruko bertsolariak, maiatza eta ekainerako.*

txapelduna: 1980 eta 1982an. Bertsozale Elkarteko Datu Baseak aitortzen duenez: “1980ko txapelketan, berritasun handia ekarri zion bertsogintzari. Haren hizkera, irudi eta metafora-mundua eta, oro har, bertsoak egituratzeko modua bereziak ziren, ordu artekoak ez bezalakoak. Neurri eta doinuetan ere berrikuntza handiak ekarri zituen: estrofa eta doinu asko sortu zituen, ordu artekoetatik oso desberdinak. Amurizarekin, bertsolaritza beste aro batean sartu zen”. Atzetik etorri diren puntako hainbat bertsolarik aitortu dute Amurizak euren izandako eragina, besteak beste, Andoni Egañak.

## Plazan bezala eskolan maisu

Bertsolari jaio egiten zela esaten zen garai hartan (80ko hamarkadan) Amurizak “Hori bada baldintza, zuek jada betetzen duzue! jaio zarete!” egiten zuen aldarri, ondoren, bertsotan ikasi egiten zela azaltzeko. Bertso eskola asko Xabier Amurizak emandako ikastaro horietatik sortu ziren. Horietan lehena Santutxuko bertsolari eskola izan zen.



## Txapelketetan

Bertsolari Txapelketa Nagusian Txapel-duna izan zen 1980an eta 1982an eta hirugarren 1986an.

## Bide urratzaile, beti


Bertsozale Elkarteko Datu Baseak dioenez, 90eko hamarkadan, plazarik plazako ibilia utzi, eta bestelako formatu batzuk lantzeko ahalegina egin zuen (gai-mailerik gabeko saioak bultzatu zituen, berak “Saio integral” deituak): *Lazkao Txiki bat-bateko sorgina*, haren pasarte eta bertsoekin emanaldia; *Mende baten aldarriak XX.ean jarriak*, hautatutako bertso politiko eta sozialen bidez historian ibilbidea egiten zuten Jon Maiak eta biek; *Harri eta herri*, Arestiren poesia hautatuekin emaniko hitzaldi-errezitaldia.

## Idaztera emango du denbora

Aurrerantzean sormena erabat idaztera bideratzea erabaki du Amurizak. Lehendik ere obra aberatsa du, argitaratuak ditu bai bertso liburuak, nola biografia, itzulpen, eleberri, poesia eta saiakerak. ■



## Raul Zibechi. Latinoamerikako gizarte mugimenduen ikertzailea



**Latinoamerikako herri mugimenduak ikertu eta bizi izan ditu barrutik Raul Zibechi uruguitarrak (Montevideo, 1952). Hainbat herrialdetan azken urteotan agintean izan diren ezkerreko gobernuen zikloa amaitu dela argi du. Lorpenak gorabehera, gobernu horien ezintasunak agerian utzi ditu berriki gurean, Komite Internazionalistek antolatutako hitzaldian.**

# “Paralisiak jota daude Latinoamerikako ezkerreko gobernuak”



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: IÑIGO AZKONA

## Erbestez erbeste

“Klase ertaineko familia eskuindar batean sortu nintzen. Gaztetan familiaren giro itogarritik ihes egin nahi izan nuen, eta ondoren herrialdetik, horretan militarrek lagundu bazidaten ere. Tupamaroen FER ikasle mugimenduan ibili nintzen eta 1973ko kolpea izan zenean Argentinara alde egin behar izan nuen. Handik urtebetera han ere kolpea eta hanka, Espainiara. Bertan oso garai interesgarria bizi izan nuen, auzo elkarteetan, NATO-ren aurkako “mugida”-n... Uruguaira 40 urterekin itzulita, Eduardo Galeanok sortutako *Brecha* aldizkarian idazten hasi nintzen eta berehala gizarte mugimenduak ikertzeko Latinoamerikan barna ibiltzeari ekin nion”.

### Nolakoa izan da herri mugimenduetan egin duzun ikerkuntza?

Nekazari mugimenduak, indigenenak eta hirietakoak aztertu ditut, haiekin denbora batez bizitzen. Mugimendu jakin batera hurbiltzerakoan nire teknika burua ahalik eta garbien eramatea da, aurreiritzirik gabe, eta bizitzea, egunerokotasunean murgiltzea.

### Mugimendu antisistemikoak deitu nahia go duzu.

Edo “gizarteak mugimenduan”, mugimendu sozial edo sindikalen dikotomia klasikotik irten nahi dudalako. Mugimendu sozialen kontzeptua AEBetan eta Europan sortu zen, 60ko eta 70eko hamarkadetan rol handia izan zuten mugimenduak definitzeko: eskubide zibilen aldekoak, emakumeen aldekoak, gerraren aurkakoak... Estatuari edo ugazabari gauza batzuk galdatu eta horiek lortzeko mobilizatzen dira. Latinoamerikan, horrez gain, badute berreko ikuspegi bat, euren mundua eratzten dute. Esaterako, MSTkoek lurra eskuratu dituzte Brasilen, jabe handiei

kendutako 25 milioi hektarea, eta horietan gune kolektiboak antolatu dituzte; ekoizpen kooperatibak sortu eta 1.500 eskola eraiki dituzte.

### Beste era bateko harremanak, beraz.

Bai, eta eskoletan pedagogia sortu dute. Hor ez du zentzurik *mi mama me mima* irakasten ibiltzeak edo garbigailuez mintzatzekoak. Lan eginez eta jolastuz ikasten dute, ez irakurketa-idazketa pedagogia klasikoarekin. Ezaugarri afrikarrak daude hor, lurraldearen eta arbasoen garrantzia...

### Auzolanak garrantzi handia du hor.

Lan kolektiboak berebiziko rola du mundu horretan, hemen auzolan eta Latinoamerikan *minga* edo *tequio* izenez ezagutzen dena. Borroka sozialen indarretako bat da eta identitatea ematen du.

### Indigenen pentsamoldeak ere eragiten du.

Jatorrizko herrien ekarpena Identitatea da, ondo bizitzearen ideia lantzen dute,



*“Komunitatea eta eskualdea ardatz dituen boterea berrasmatu behar da, estatu logikatik at”.*

ingurunearekin harmonian. Ingurumenaren aldeko aktibista erradikalak direla esan daiteke, eta oso espiritualak: ospakizun kolektiboei garrantzia ematen diete. Chiapasen deiadar batez deitzen dira batzarrak, antzina Euskal Herrian egiten zen moduan.

#### **Nola aldatu du ezkerraren ikuspegia indigenismoak?**

Mugimendu indigenek, bereziki EZLNk, ezkerrari lagundu diote garapen kapitalistik kanpoko garapen ereduak badirela ulertzen. Sozialismo erreala kapitalismoaren jarraipen garapenzalea izan zen. Gure zibilizazio krisia ekoizpen materialean oinarritutako ereduarena da eta indigenen mugimenduak ulertzen lagundu digu egungo zibilizazio krisia ez dela munduaren amaiera, mundu baten amaiera baizik.

#### **Herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen artekoak?**

Ezkerreko gobernuak daudenean borroka sozialak behera egiten du gehiengotan, baina denetarik egon da: harreman onak, txarrak eta azpiratzeko saiakerak. Corrairen gobernuak, esaterako, oso harreman gorabeheratsua izan du indigenekin.

#### **Defentsa jarrera sumatzen zaie ezkerreko gobernuari.**

Oso agerikoa: Argentinan galdu dute gobernuak, Ekuadorren Correak datorren urteko hauteskundeetara ez aurkeztea erabaki du, Maduro agian kenduko dute erreferendum bidez eta Bolivian Moralesek erreferenduma galdu berri du. Ez dira gai izan euren baitan ordeztu buruzagi berriak aurkitzeko. Horrek, higarurari gehituta, ekiteko aukera eman dio eskumari, berriro boterea hartzeko. 2013tik ari naiz ziklo progresistaren amaiera iragartzen. Ezintasun handiak erakutsi dituzte, herri mugimenduek salatu dutenez. Posible egin dute pobrezia jaitea baina ez ezberdintasuna, ez dira gai izan aberatsenek osatzen duten %1 boteretsu horri aurre egiteko.

#### **Zer gertatzen ari da Brasilen?**

AEBen eta kapitalismoaren erasoaldia dago ezkerreko gobernuen aurka, baina horren aurrean paralisi politikoa dute gobernu horiek. BPGren %4ko jaitsierarekin itxiko da urtea. Oraino PTren bide-lagun izan den eskumak indarra hartu eta bizkarra eman dio Lulari, kaleak ere irabazi ditu ustelkeriaren erruz. Litekeena Dilma Rousseffek kargugabetzea izango da.

#### **Venezuelan ere kudeaketa txarra salatu duzu.**

Petrolioak 130 dolarrean zegoenean diru asko zegoen Venezuelako, ustelkeriari edo eraginkorrek ez diren politiketara bideratu zen diru hori. Orain, upela 30 dolarrean dagoela, zuloa dute kutxan. Chavez gobernura iritsi zenean, Venezuelaren esportazioen %90 petrolio gordina zen. Egun %95 da: 17 urte izan dituzte eta ez dira gai izan ekoizpena dibertsifikatzeko. Arrautza egosiak inportatzen dira, atera kontuak, zentzugabekeria da hori. Nazionalizatu diren enpresa batzuetan ekoizpena erdira jaitsi eta langile kopurua bikoiztu egin da. Kudeaketa txar hori gobernu aurrerakoien erantzukizuna da, ez bestea.

#### **Zer zentzutuan birfundatu behar da pentsaera kritikoa?**

Oraino pentsamolde eurozentrikoa egon da: marxismoa, anarkismoa, Foucault eta beste. Oso ondo dago baina askapen adibideak badira Latinoamerikan: Tupac Amaru, Tupac Katari, Haitiko iraultza... Nazio-estatu bako, komunitatea eta eskualdea ardatz dituen boterea berrasmatu behar da, estatu logikatik at. ■



## Nafarroan daukan merkatu potentziala ikusirik, euskarazko katea sortuko du Aragon TVk

Aragoiko telebista publikoak euskarazko katea martxan jarriko du laster. “Merkatu ikerketa egin dugu joan den astean UPNren egoitza parean bilduta zegoen jendetzaren artean eta ikusi dugu eskaintza arrakastatsua izango litzatekeela martxan jarriz gero”, azaldu du Aragon TVko bozeramaile batek. Aragoi Telebista negoziatzen ari da Asperekin eta Asegarcerekin, pilota partidak eskaini ahal izateko. “Asmoa euskaraz bakarrik emitituko duen telebista egitea denez, aztertu behar dugu nola azpititulatu dezakegun Juan Martinez de Irujo tantoa galdu eta juduen hizkeran arrosarioa erreztatzen hasten denean”. Gainerakoan, polemikarik ez dute nahi: “Eguraldi mapan, adibidez, kendu egingo dugu Jaca ez dezaten esan euskaldunen gauzak Nafarroan sartu nahi ditugunik”.



### SAREAN ARRANTZATUA


#### Egin zaitez artzain!



#### Txotekoa Gasteizetik pasieran



#### Larrialdi zerbitzua



### BERANDUEGIZALEEK BIDLALITA

**Erdaldun elebarrak ikusmen arazoak dituzte, Osakidetza ustez**



# ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,  
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA  
PAREKIDETASUNA  
HERRIEN MUNDUA  
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA  
EUSKALTZALETASUNA

## EKONOMIA SOZIALA

ELIKADURA BURUJABETZA  
INDEPENDENTZIA  
DEMOKRAZIA ZUZENA  
DESOBEDIENTZIA ZIBILA  
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA  
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilerro ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



Ekonomia Sozianean oinarritutako enpresa gara. Langileok gara jabeak eta egitura horizontala eta parte hartzailea dugu. Eragiten jarraitzeko, komunitatea indartu eta kolektiboki jardun nahi dugu, ARGIA osatzen dugun guztion elkartetik eta inplikaziotik abiatuta.

MAIATZEKO ZOZKETAK



LANKI ikertegiko materiala  
(5 saski)

Lanki  
lanki.coop



Ondarroako Arrigorri ostatuan  
egonaldia 2 pertsonarentzat

Arrigorri  
arrigorri.eus



Dabilen harriari goroldiorik ez  
(5 liburu)

Joxemi Zumalabe  
joxemizumalabe.eus



REAS (Ekonomia alternatiboa eta  
solidarioaren sarea) (2 saski)

REAS  
www.economiasolidaria.org

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545  
gunea@argia.eus  
www.argia.eus/gunea

BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA  
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA  
**FEMINISMOA ETA EUSKALGINTZA: BI BORROKEN**  
**ARTEKO HURBILKETA XUMEA** BLA BLA BLA LA  
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA  
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA  
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA  
**ALDAKETA NAFARROAN** BLA BLA BLA BAL  
BLA-BLA BLA BLA BL-BL-BL-BLAAA BLA BLA  
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA  
BLA BLA BLA BLA BLA **KLIMA ALDAKETA** A  
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA  
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA  
**GARAI KONPLIKATUAK EUROPAKO EZKERRENTZAT**  
BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA  
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA  
**LOMCE, HEZKUNTZA HANKAZ GORA** BLA BLA BLA  
BLABLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BBLA BLA  
BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA LA BLA  
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA  
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA  
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA

# HAUTATZEN DAKITENENTZAT

9,95€

Eskura ezazu!

943 371545

[www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda) - [denda@argia.eus](mailto:denda@argia.eus)

**ARGI**Aren asteroko harpidedunak  
doan jasoko du postaz

